

Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeetan

Lehen txostena_2020ko apirila

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia-
Observatorio Vasco del Tercer Sector Social

2020ko apirila

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokiko taldea.

Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan izeneko txostena Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan Covid-19aren krisiak izan duen eragina ezagutzeko Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Sareen Sarearen ekimena da.

Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokia EAEko Administrazio orokorraren tresna teknikoa da eta informazioa eta ezagutza biltzeaz, sistematizatzear, eguneratzeaz eta sortzeaz arduratzen da, baita hedapenez ere, hirugarren sektorre sozialarekin lotutako esferetan eta bertan txertatutako erakunde eta sareetan. Eskuduntza horien garapenean, Behatokiak lankidetzaz estua izango du erakunde eta sareekin.


Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del Tercer Sector Social



Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek eta sareek partaidetzari esker egin da txosten hau, eta bereziki, Sareen Sarearen lankidetzari esker, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko entitateen sareak biltzen dituen elkarteak den aldetik.

Honelako lanen bidez, Hirugarren Sektorre Soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



AUKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK	2
3. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA	4
4. COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINA EHSS-EKO ERAKUNDEETAN: EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.....	9
4.1. Hartzailleengan izan duen eragina.....	9
4.1.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena.....	9
4.1.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera	12
4.1.3. Begirada espezifikoa bat kolektibo jakin batzuei.....	16
4.2. Zerbitzu eta jardueretan duen eragina.....	24
4.2.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena.....	24
4.2.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera	27
4.2.3. Begirada espezifikoa bat kolektibo jakin batzuei.....	30
4.3. Boluntarioen eta ordainpekoen artean izan duen eragina.....	37
4.3.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena.....	37
4.3.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera	39
4.3.3. Begirada espezifikoa bat kezka nagusien gainean	42
4.4. Finantzaketarekin eta bitarteko ekonomikoekin loturiko inpaktua	45
4.4.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena.....	45
4.4.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera	46
4.4.3. Begirada espezifikoa bat kezka nagusien gainean	49
5. AZKEN GOGOETA BATZUK.....	51

1. SARRERA

2020ko martxoaren 14an, estatu osoan alarma-egoera ezarri zen, Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko. Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeak (EHSS), gizarteratzea sustatzea eta zaugarritasun bereziko komunitate edo kolektibo ugariaren eskubideak gauzatzea sustatzea ezaugarri dutenak, inoiz baino gehiago ari dira erakusten egiten duten lanaren balioa. Neurri horretako larrialdi sozialaren testuinguru honetan, gai izaten ari dira urgentziaz eta beste instituzio batzuekin batera egituratzeko eta koordinatzeko, krisi honek ekarri duen egoera-aldaketa dela eta eragin handiena jasan dezaketen pertsonengan eragin horiek arintzeko (adinekoak, bazterkeria-egoeran daudenak, haur zaugarriak, indarkeria jasaten duten emakumeak eta abar). Erantzun urgenteak, baina pertsona bakoitzaren arabera egokituta, sektoreak bereizgarri duen funtsa galdu gabe, eta bizkor, profesionaltasunez, eta noski, irudimen handiz eta berrasmatze bidez erantzun beharreko askotariko kasuistikak eta egoerak.

Baina neurri horretako krisi batek sortutako eraginaren aztarna orain presente dago, eta epe labur eta ertainean ere ondorioak ekarriko ditu zalantzarik gabe. Erakundeen funtzionamenduan eta, batez ere, haien jardueraren hartzailleengan bete-betean eragiten duen larrialdi-testuingurua da. Horregatik da garrantzitsua sektoreko erakundeek bizi duten eta biziko duten egungo nahiz etorkizuneko eragina ezagutzea.

Lan hau Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan, eta bereziki, haien hartzailleengan Covid-19aren krisiak izan duen eragina ezagutzeko Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Sareen Sarearen ekimena da.

Bizitzen ari diren errealitatearen informazioa eskainiko duten erakundeen kopuru zabala lortzen saiatu gara, eta aldi berean, aniztasuna bereizgarri duen sektore baten espezifikotasunak erakusten lagunduko duten ñabardurak ezagutu nahi izan ditugu.

Ikerlana hiru aste eskasean egin da (apirilaren 6tik apirilaren 27ra), eta urgentziazko testuinguruan sartu behar da, eta hala, lehentasuna eman zaio berehalakotasunari eta hartzailleek eta erakundeek, oro har, izaten ari diren eraginaren egungo ikuspegia emateko aukerari. Berehalako orainaldiaz eta epe laburreko etorkizuna izan daitekeenari buruz hitz egiteko aukera ematen duen bat-bateko argazkia.

Lan honen ondoren, epe ez oso luzean erakundeen errealitatea neurtzeko bigarren lan bat egingo da. Egungo urgentzia-uholdea gainditutakoan, hondamendia jaso eta gizarte oso baten lehentasunetan ordena-aldaketa ekarri duen krisiak sortutako kalteei irtenbidea eman beharko zaienean erakundeen egoera ezagutzea ahalbidetuko duen argazki berria izango da.

Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokitik sektoreko erakunde guztiei gure aitoren zintzoena egin nahi diegu egoera zail eta aldakorretan askotariko errealitatei erantzuna emateko egiten ari diren lana dela eta. Eta, noski, gure esker ona galdetegia erantzun duten erakundeek eta onlineko saioetan parte hartu dutenei, deialdia egiteko ia denborarik gabe, disponibilitate izugarria erakutsi dute haien bizipenak partekatzeko eta Covid-19aren krisiak izandako eraginari buruz hausnartzeko.

2. PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Planteamendu orokorra


Adierazi dugun moduan, lan hau Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetan, eta bereziki, haien hartzailleengan Covid-19aren krisiak izan duen eragina ezagutzeko Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaia, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Sareen Sareak duten kezka eta interesaren ondorioz egin da.

Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaia da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusian EHSSren erakunde mailako parte-hartze izaera eta izaera kontsultiboa duen organo gorena. Organo horren araudi mailako definizioaz harago, elkarrizketa zibila batez ere lankidetzara publiko-soziala da, errealitate sozialak eta haren bilakaerak planteatzen dizkigun erronkak aztertzeko eta horiei elkarrekin erantzuteko. Eta horren adierazgarri da COVID-19a arrisku-, bazterkeria- eta/edo txirotasun-arriskuan dauden pertsona eta familiengan izaten ari den eraginari lankidetzara erantzuteko eraturako Elkarrizketa Zibileko Mahaia batzordea.

Hala, Mahaia eta bereziki batzordea, krisia hasi zenetik, informazioa eskuratzeko eta harremanetarako eremu garrantzitsua ari da izaten, errealitatea ezagutzeko, presazko beharrak identifikatzeko eta epe labur eta ertaineko beste batzuk ezagutzeko, baita bazterkeriaren arloan erantzunak zehazteko eta aktibatze ere. Txostenak gainerako eremuetako eztabaida-taldeak fokalizatzen ditu eta sektorea osatzen duten esparru ugarietako erakunde kopuru adierazgarriari zabaldu dio kontsulta.

Denbora tarte laburrean, Eusko Jaurlaritzarekin eta bazterkeria-batzordearekin batera, ikerketaren analisirako helburuak eta fokurak definitu dira: krisi honek erakunde hartzailleengan izandako eragina eta erakundeetan eurretan izandako eragina, batez ere haien zerbitzuetan edo jardueretan, boluntarioengan eta ordainpekoengan, baita baliabide ekonomikoetan ere.

1. IRUDIA: AZTERKETAREN ARDATZ NAGUSIAK



Laneko prozesuan, krisia nola bizitzen ari ziren adieraziko zuten erakunde askoren informazioa lortzen saiatu gara (galdetegi bidez), eta horrez gain, informazioa lehenbailehen lortzeko erantzun azkarra izateari lehentasuna eman genion (galdetegia astebetetz egon zen zabalik).

Presazkotasuna kontuan hartuta, laginaren ordezkagarritasun-irizpide batzuk ez dira aintzat hartu (informazio gehiago *Metodologia* atalean), baina ia 200 erakunde sozialetara iristea lortu dugu, lurralde batekoak eta besteak, askotariko jarduerak dutenak, hartzailen kolektibo desberdinekoak edo neurriaren arabera ere askotarikoak. Horiek guztiak dira EHSSren errealitate anitzaren erakusgarri.


Erakunde sozialen erantzun zabalak izan duen ikerketa da, adierazitako lau ardatzen inguruan ikuspegi orokorra eskaintzen du eta kolektibo batzuen errealitate zehatzean sakondu nahi du; hain zuzen, kolektibo horien inguruko informazioa zabaldu ere egin nahi zuen.

Kolektibo jakinen inguruko begirada espezifikokoago hori egiteko, hiru eztabaida-talde egin dira. Horien konfigurazioa Eusko Jaurlaritzarekin eta Sareen Sarearekin alderatu da. Zehazki, begirada desgaitasuneko erakundeetan, haurrenetan eta adinekoenetan jarri nahi zen. Horrez gain, migratutako kolektiboen eta indarkeria jasaten duten emakumeen kolektiboen gaineko informazio osagarria lortu da, talde horiekin esku-hartzea zuzenetik ezagutzen duten sektoreko pertsonekin bi elkarrizketa eginda. Lau azterketa-ardatzen arabera egituratutako txostenak, hartzailen eta zerbitzuen ardatzean, kolektibo espezifikoko horietan sakontzen duen kapitulu bat du.

Helburuak

Ikerketaren helburu nagusia da Covid-19aren krisiak EHSSan izaten ari den eragina ezagutzea, egoeraren ahalik eta argazki errealena izan dezagun, erakundeek eta sektoreko sareek, Eusko Jaurlaritzaren eta beste instituzioen laguntzarekin, ekintzak egin ditzaten krisi honek hartzailengan eta erakundeetan gaur egun duen eta etorkizunean izan dezakeen eragina arintzeko. Planteamendu hori hartuta, ikerketaren helburuak honela zehazten dira:

2. IRUDIA: HELBURU ESPEZIFIKOAK



1. helburua: Covid-19aren krisiak gaur egun duen eta etorkizunean izango duen eragina neurtzea

Erakundeek emandako informazio-bilketa sistematikoaren bidez, gaur egun krisia izaten ari den eraginaren argazkia lor dezakegu, eta erakundeen aurreikuspenen arabera krisi horrek 2020ko hurrengo hilabeteetan izan dezakeen eraginaren estimazioa egin dezakegu.

2. helburua: Covid-19aren krisiaren eragina bi dimentsio jakinetan aztertzea

- **Hartzailengan duen eragina**, hartzailen bizi-proiektuetan Covid-19aren krisia nola eragiten ari den aztertuz, zer egoeratan dauden, zer arazo dituzten (ostatua, elikadura, konfinamendua eta abar), zer ondorio ekar ditzakeen horrek beren bizitzetan eta abar.
- **Erakundeetan duen eragina**, bai haren **zerbitzu eta jardueretan** (zerbitzuak eten edo itxi, jarduerak bertan behera utzi, zerbitzu edo jarduera berriak sortu edo aldaketak izan eta abar), bai **boluntarioengan eta ordainpeko langileengan** (segurtasun-arazoak edo sanitarioak, aldaketak lan-baldintzetan eta abar), baita **baliabide ekonomikoetan** ere (finantzaketa jaistea, likidezia-arazoak eta abar).

3. helburua: Covid-19aren krisiaren eragin espezifikoa ezagutzea

Era berean, ikerketaren helburua da, ahal den neurrian, zehazki Covid-19aren krisia erakundeetan izaten ari den eragina ezagutzea, haien **esparru edo kontingentziaren** arabera, erakundeen **neurriaren** edo dagokien **lurralde historikoaren** arabera.

4. helburua: Arazo nagusiak eta irtenbide posibleak zehaztea

Ikerketa honekin erakundeek aurre egin beharreko eta **premiazkoenak diren arazo**en ikuspegia eman nahi dugu, eta parte hartu duten erakundeek identifikatutako **neurri edo laguntza posibleen** berri eman nahi dugu, krisiaren ondorioz sortutako arazo nagusiei aurre egiteko eta horren ondorioz etorkizunean sor litezkeenak arintzeko.

3. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Txosten hau EHSSeko erakundeetan Covid-19aren krisiak izan duen eraginari buruzko **azterketa zabalago baten lehen zatia** da¹.

Lehen hurbilketa honek, 2020ko apirilean zehar egindakoak, informazioa bildutako une jakinean krisiak izandako eraginaren argazkia eskaini nahi du; izan ere, urgentziatzko une horretan, erakundeak bete-betean sortzen ari diren behar ugarietara erantzuna eman nahian dabilta. Bigarren neurketak (uda aurretik edo ondoren) argazki desberdina erakutsiko duela aurreikus daiteke.


Lehen faseari dagokionez, lan-prozesua **4 urratsetan** garatu da.

¹Txosten honetan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak jasotzen duen Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa hartzen dugu abiapuntutzat. Definizio horren arabera, sektore horretako parte dira egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten gizarte-ekimeneko antolakuntzak, eta esku-hartze sozialeko jardueren bidez, gizarteratzea, garapenerako lankidetzak, zaurgarritasun- edo bazterketa-, desberdintasun-, babesgabatasun-, desgaitasun- edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideen baliatze eraginkorra sustatzea xede nagusitzat dutenak.

Horrez gainera, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko saretzat ditu besteen ordezkagarriak diren bigarren mailako eta maila altuagoko antolakuntzak, bai eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko antolakuntzak ere, baldin eta jarduteko lurralde edo esparru geografikoan ez badago kolektibo hori ordezkatzeko sarerik.

EUSKADI. 6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartuta: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096e.pdf>

3. IRUDIA: LANEKO PROZESUAREN URRATS NAGUSIAK



Azterketak metodologia mistoa du, informazio-bilketa kuantitatibo eta kualitatiboa konbinatzen ditu, zenbait tresnaren bidez, hau da: galdetegia, eztabaida-taldeak eta elkarrizketak. Jarraian, informazio-bilketako tresna horiek martxan nola jarri diren labur azaltzen duen fitxa teknikoa dator:

4. IRUDIA: FITXA TEKNIKOA

Tresnak	Datak	Parte hartu duten erakundeak
Online galdetegia	2020ko apirilaren 9tik 17ra	EHSSeko 184 erakunde
Eztabaida-taldeak	Apirilaren 17tik 23ra	EHSSeko 27 erakunde eta sare
Elkarrizketak	Apirilaren 20tik 23ra	EHSSko 2 informatzaile garrantzitsu

Online galdetegia eta datu kuantitatiboen analisia

2020ko apirilaren 9tik 17ra, azterketaren helburuei erantzuteko *ad hoc* diseinatutako galdetegi bat aplikatu da. Galdetegiaren **edukia** Behatokiko taldeak prestatu du, dokumentuak arakatu eta barne mailako kontrastea egin eta Enplegu eta Gizarte Politikoetako Sailarekin, bazterkeria-batzordearekin eta Sareen Sarearekin kontsulta egin ondoren.

Galdetegiak **on-line formatua** izan du, Covid-19aren krisia EHSSeko erakundeetan izaten ari den **eragina aztertze**ko erabili da eta erakundeetan lidergoak gauzatzen duten pertsonen (zuzendaritza, gerentzia, gobernu-organoa eta abar) eta informazioa osatzeko beharrezkoa den osotasun-ikuspegia izan dezaketenean egin dute.

Galdetegia osatuz azterketan parte hartzeko gonbidapena Eusko Jaurlaritzatik-Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Behatokitik nahiz Sareen Saretik egin zen, sare eta erakundeak parte hartzeko gonbidapena eginez. Guztira galdetegia erantzunez **184 euskal erakunde** hartu dute parte.

Ikerketa hau **arakatze-lan** gisa hartu behar da, urgentziatzeko testuinguruan, eta agerikoa da emaitzak azkar eta arin eskaini beharreko egoera dela. Garrantzitsua da astebete eskasean jasotako erantzunen bolumen adierazgarriari balioa ematea, errealitatera lehen hurbilketa egiteko aukera ematen baitu, gerora analisi kualitatiboan sakontzeko abiapuntu gisa.

Ordezkarritasun-irizpideak zorrotz bete ez diren arren², 184 erakunde horien erantzun bateratua giltzarria da hartzaileak nahiz erakundeak eurak bizitzen ari diren eragina ezagutzeko.

Datuak **kontu pixka batekin hartu** behar dira, bereziki desagregazioak egiten direnean. Ildo horretan, galdetegiari erantzuteko motibazioaren bitartez, laginaren banaketari jarraipena egiteko saiakera egin da landa-lanean, unibertsoaren ahalik eta ordezkaritza antzerakoena izatea ahaleginduz, lurralde historikoari, jardun-eremuari eta erakundearen neurriari dagokionez, baina horrekin ez da bermatzen lagin kontrolatua³.

Horrenbestez, esan daiteke azterlan honen laginak⁴ lortu nahi izan den heterogeneotasunari eusten diola funtsean, nahiz eta, euskal erakundeen baterako garrantzia aintzat hartuta, hainbat alderdi hartu behar diren kontuan datuak behar bezala interpretatzeko:

- Eremuaren arabera, ordezkaritza handixeagoa dute Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeek.
- Lurralde historikoen arabera, ordezkaritza txikixeagoa dute Gipuzkoako erakundeek, eta handiagoa, aldiz, Arabakoek (nahiz eta Gipuzkoako erakunde gehiagok erantzun duten Arabakoek baino).
- Neurriaren arabera, ordezkaritza txikiagoa dute erakunde txiki eta ertainek (300.000 € baino sarrera-bolumen txikiagoa dutenak).
- Artatutako kontingentziaren arabera, gehiago dira bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dietenak.

Adierazi den moduan, analisiak lau desagregazioen inguruan egin du azterketa: kontingentzia, eremua, lurralde historikoa eta neurria:

Kontingentzia ***Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak:*** honako hauei arreta ematen dieten erakundeak: txirotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, prostituzioan dabilzanak, presoak edo preso ohiak, adikzio edo drogamenekotasun-arazoak dituztenak... Gizarte-zerbitzuen jarduerari lotuta daudenak.
Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak: mendekotasun-egoeran dauden adinekoei arreta ematen dieten erakundeak.
Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak: babesgabetasun-egoeran dauden haurrei, abusuen, tratu txarren biktima diren emakumei eta abarri arreta ematen dieten erakundeak
Desgaitasuna duten pertsonak: desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dieten erakundeak, buruko gaixotasuna eta gaixotasun kroniko batzuk barne, endekapenezkoak...
Beste kolektibo zaurgarri batzuk: adinekoen elkarteak, ijitoak, immigranteak, familiak, emakume elkarteak, mendekotasunak dituzten pertsonak, haur eta gazteak oro har, gaixotasunak dituzten pertsonak (nahitaez mendekotasunik edo desgaitasunik izan gabe) eta abar.

² Lortutako laginaren fidagarritasuna eta ordezkarritasuna zehazteko, lehen aipatutako EHSSren definizio zehatza hartu behar da kontuan, eta EHSS osatzen duten erakundeen unibertsoak duen bolumena. EHSSri buruz argitaratutako azken datuen arabera, gaur egun horren parte diren erakundeak 3.938 direla kalkulatu da. Hori guztia kontuan hartuta, % 95eko fidagarritasun maila dute azterlanaren zati honetako emaitzek, +/- % 7,05eko errore-marginarekin.

³ Kontuan izan behar da lehentasuna eman zaiola informazioa lehenbailehen eskuratzeari eta ez erantzun zabala jasotzeari; izan ere, erantzun zabala lortzeko, galdetegia erantzuteko epea nabarmen zabalduta behar zatekeen eta beste motibazio-estrategia batzuk aktibatuta, testuinguru honetan ez liratekeen onargarriak (azterketaren helburu den unibertso erakunde motibazio-erako eta jarraipenerako telefono-deiak eta abar). Laginaren banaketari arreta ematen saiatu gara, baina lagin-irizpideei dagokionez ez da lagin kontrolatua.

⁴ Eranskinen dokumentuak kontsulta daitezke laginaren eta unibertsoaren ezaugarrien taulak.

Eremua⁵	<p>Osasuna: gaixotasunak dituzten pertsonen eta haien familiei babesa eskaintzen dieten erakundeak. Haien jarduera, batez ere, osasun arlora zuzenduta dago.</p> <p>Enplegua: batez ere gizartean eta lan-munduan txertatzera bideratuta lan egiten duten erakundeak, lan-munduratzeko edo enplegu-zentro bereziak barne. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna dutenak edo egoera ahulean daudenak izaten dira jardueraren hartzaileak.</p> <p>Gizarte-zerbitzuak: oro har, desgaitasuna duten edo babesgabatasuna, mendekotasuna edo bazterkeria jasateko arriskuan edo egoeran dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeak. Horien jarduera batez ere gizarte-zerbitzuak eskaintzearekin lotzen da.</p> <p>Hezkuntza eta aisialdia: beren jarduera haurrekin eta gazteekin lotutako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzean oinarritzen duten erakundeak dira eta egoera ahulean dagoen kolektiboak den heinean, haien eskubideak sustatzeaz arduratzen dira.</p> <p>Garapenerako nazioarteko lankidetzak: hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeetan garapenarekin lotutako lanak egiten dituzten erakundeak (GGKE)⁶.</p> <p>Zeharkako gizarte arlokoak: egoera ahulean dauden kolektiboaren eskubideak eta berdintasuna sustatzeaz arduratzen diren erakundeak (emakumeak, adinekoak, gutxiengo etnikoetako pertsonak eta abar); gehien bat garapen komunitarioko jarduerak egiten dituzte.</p> <p>Beste batzuk: batez ere aholkularitza sozialeko zerbitzuak, prestakuntza, ikerketa eta abar egiten dituzten sektoreko erakundeak.</p>
Lurralde historikoa	<p>Bizkaia: egoitza nagusia edo ordezkaritza nagusia Bizkaian duten erakundeak.</p> <p>Gipuzkoa: egoitza nagusia edo ordezkaritza nagusia Gipuzkoan duten erakundeak.</p> <p>Araba: egoitza nagusia edo ordezkaritza nagusia Araban duten erakundeak.</p>
Neurria	<p>Txiki eta ertainak: sarrera-bolumenean 300.000 € baino gutxiago duten erakundeak.</p> <p>Handiak: sarrera-bolumenean 300.000 € baino gehiago duten erakundeak.</p>

Gainera, analisiak informazioa ematen digu erakundeetan Covid-19aren krisia *gaur egun* izaten ari den eraginaren inguruan, baina erakundeek **EPE LABURREAN** (2020an zehar) eragin hori nolakoa izatea aurreikusten duten *estimazio* bat ere egiten du.

Desagregazioei dagokienez, txostenean aurkeztutako analisia erakundeak *gaur egun* bizitzen ari diren eraginean soilik oinarritzen da. Informazioa gutxi gorabeherako hurbilketa gisa hartu behar da, eta kontuz aztertu behar da informazioa desagregatzean lagina txikia delako.

SPSS-WIN estatistika-programarekin **tratatuta eta ustiatuta** da informazio kuantitatiboa; tresna horri esker, beharrezko estatistika-formula guztiak egin ahal izan dira. Datuen ustiapena eta analisia deskribatzaileak dira batez ere (maiztasunak, ehunekoak eta abar).

Eztabaida-taldeak, elkarrizketak eta informazio kualitatiboaren azterketa

Datuen analisi kuantitatiboa osatzeko, horiek interpretatzeko eta Covid-19aren krisiaren aurrean izandako egoera eta esperientziak trukatzeko, kontsulta kualitatiboa egin da **4 eztabaida-talderen eta 2 elkarrizketaren** bidez (onlineko formatuan, konfinamendu-egoeran egonik), eta horrek informazio erabilgarria eman digu sektorearen diagnostikoa aberasteko.

Zehazki, hauek egin dira:

⁵ Eremuen zehaztapen handiagoa izateko, honako txosten hau kontsultatzea gomendatzen da: *2019ko barometroa. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen datu nagusiak*. https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/BAR%C3%93METRO_txostena_2019_eus.pdf

⁶ Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako erakundeek azterketa honetarako emandako informazioa hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeetan eta hango hartzaileekin egiten duten jardueran oinarrituta dago.

- 3 eztabaida-talde *desgaitasuna* duten pertsoneri, *haurrei eta familiei* eta *adinekoei* arreta ematen dieten erakundeekin, eta eztabaida-talde bat hiru lurralde historikoetan jarduera egiten duten sare eta erakundeekin, lurralde bakoitzaren ñabardura zehatzei buruz hausnartzeko.
- *Migratzaileei* eta *indarkeria matxista jasaten duten emakumeei* buruzko ezagutza espezifikoa duten erakundeetako informatzaile gakoei 2 elkarrizketa.

Guztira 27 erakundek eta sarek eman dute lehen eskutik erakundeetan eta hartzaileengan Covid-19aren krisia izaten ari den eraginaren berri⁷.

Bai eztabaida-taldeetan, bai elkarrizketetan, parte hartu duten erakundeen lagina ***lagin ez-probabilistiko opinatikoa da*** (lagin arrazoitua), eta ez du multzo osoaren ordezkagarritasun estatistikoa bilatzen, baizik eta egokientzat edo informatzaile onentzat jotzen diren pertsonak edo erakundeak aukeratzea, ikergaia hobeto ezagutzen dutelako edo arazoarekiko duten motibazioagatik.

Landa-lan kualitatiboaren atal honetarako **aukeraketa- eta osaketa-irizpideak** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Sareen Sarearekin kontrastatu dira, Covid-19aren krisiak izan dezakeen eragin mailaren edo kolektibo batzuekin lotuta informazioa zabaltzeko beharraren arabera lehenespene-irizpideak aintzat hartuta.

⁷ Eranskinen dokumentuak kontsulta daiteke eztabaida-taldeetan eta elkarrizketetan parte hartutako erakundeen zerrenda osoa.

4. COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINA EHSS-EKO ERAKUNDEETAN: EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Diagnostiko honen bidez, Covid-19aren krisiaren aurrean EHSSeko erakundeen egoera ezagutzeko ahalbidetako digun lehen argazkia eskaini nahi dugu, erakundeen hartzaileengan izandako eragina aintzat hartuta; horrez gain, zerbitzu eta jardueretan, boluntarioengan eta ordainpekoengan eta erakundeen baliabide ekonomikoetan izandako eragina ere aztertu dugu.

Gaur egun (apirileko hirugarren astea) bizitzen ari den errealitatea, azken batean. Epe laburreko *estimazioa* ere eskaini dugu (2020an falta dena), eta hala, datozen hilabeteetan erakundeen aurreikuspenen arabera haiek eta hartzaileek ere izango dituzten arazo edo egoerak irudika ditzakegu.

Argazki hori informazio kuantitatibo eta kualitatiboa batzeko eta aztertzeko prozesu batetik abiatuta eraikitzen da; era horretan, datu deskribatzaileez gain, eta horiek osatzeko, Covid-19aren krisiaren aurrean EHSSeko erakundeek bizi duten errealitatearen analisi ulergarria egitea ahalbidetzen duten esanahiak eta hausnarketak ere eskaintzen dira.

4.1. Hartzaileengan izan duen eragina

4.1.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena


Martxoaren 14an Espainiako Gobernuak Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko ezarritako alarma-egoerak pertsonen zirkulazioa mugatzen zuten neurriak ezarri zituen. Konfinamenduan bizi behar izan dute aste batzuetan pertsona gehienek.

Konfinamenduak pertsonen errutinetan aldaketa ekarri du, etxean geratu behar izan dute, lan-jarduera utzi edo irteerak eta beste pertsona batzuekiko kontaktuak mugatu. Testuinguru hori, gizarte osorako komuna izanik, larritu egiten da zaugarritasun- edo bazterkeria-egoera handieneko pertsonengan sor ditzakeen eraginak aintzat hartzen baditugu: etxerik gabekoak, txirotasun-arriskuan daudenak, desgaitasuna dutenak, indarkeria jasaten duten emakumeak, buruko gaixotasuna dutenak eta abar. Haietan, isolamendu sozialak, enplegu-galerak, errutinarik eta erreferenterik ez izateak, aisialdiko espazioetako mugek edo seguruak ez diren etxeetan konfinamenduan egoteak are eragin larriagoa du abiapuntuan duten zaugarritasun-egoera dela eta.

Hain zuzen ere, **konfinamendutik eratorritako arazoak** (arazo psikologikoak, orain sortutakoak edo larriagotutakoak, gatazkak, arreta-gabezia, erreferenteak galtzea eta abar), **arria digitalari lotutakoak** (internetarako konexiorik edo ordenagailurik ez izatea, tresna horien erabilera mugatua, desinformazioa, eskolako atzerapena eta abar) eta **baliabide ekonomikorik ez izatea** dira erakunde gehienek hartzaileei dagokienez identifikatzen dituzten egoerak.

Baina ez dira gaur egun pertsona horiek aurre egin beharreko arazo bakarrak. **Nahi gabeko bakardadea** edo **laguntza-sarerik ez izatea**, **enplegu-galera**, **osasuna kaltetzea** edo **txirotasuna handitzea** dira, jarraian landuko ditugun beste arazo batzuekin batera, erakundeen hartzaileak bizitzen ari diren testuinguru honen ezaugarriak.

1. GRAFIKOA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK HARTZAILEENGAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ETA EPE LABURREAN (2020) AURRE EGIN BEHARKO DIETELA AURREIKUSTEN DUTEN ARAZO ETA EGOERAK. (%)



Erakundeek hartzaileek aurre egin dieten arazo nagusia **konfinamenduaren ondoriozko arazoak** izan dira. Erakundeek % 68,5ek adierazi du gaur egun hartzaileak arazo psikologikoak izaten ari direla, orain sortutakoak edo larriagotutakoak, gatazkak, arreta-gabezia, erreferenteak galtzea, indarkeria-egoerak ugartzea, kontsumo-egoerak ugartzea, animo-gabezia eta abar. Gainera, erdiek baino gehiagok aurreikusi dute epe laburrean hartzaileek konfinamenduarekin lotutako arazo horiek izaten jarraituko dutela.

3 erakundetik 2k inguruk (% 66,3) hauteman du hartzaileak **arraila digitalaren ondoriozko arazoak** dituztela orain, ordenagailurik edo Interneterako konexiorik ez dutelako, edo alfabetatze digitalarekin lotutako gaitasunik ez dutelako. Arazo horiek desinformazioa, onlineko komunikaziorako zailtasunak (bideo-deiak eta abar), onlineko prestakuntzara sartzeko zailtasunak eta abar dakartzate. Datozen hilabeteetan, erakundeek % 44,6k diote hartzaileek arraila digitalarekin lotutako arazo horiek izango dituztela.

Ugariak dira arraila digitalaren ondoriozko arazo horiek dituzten hartzaile-kolektiboak: desgaitasun fisiko eta adimen-desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, txirotasun-egoeran edo -arriskuan daudenak, migratzaileak eta abar. Kasu batzuetan alfabetatze digitalaren kontua da (ezagutza-gabezia edo ingurune digitaletan mugitzeko gaitasun-gabezia), eta beste batzuetan, gailu teknologikorik edo Internetarako konexiorik ez izatea, batez ere baliabide ekonomikorik ez dutelako edo urriak dituztelako.

Erakundeen % 64,1ek dio hartzaileek gaur egun **baliabide ekonomikoen gabeziari** aurre egin behar diotela (enplegu-galera, lehendik ere prekaritate- eta txirotasun-egoeran zeuden eta egoera larriagotu zaien familiak, sendagaien ordainketari aurre egiteko arazoak eta abar), eta datozen hilabeteetan antzeko ehunekoak uste du hartzaileek egoera bera izaten jarraituko dutela.

Nahi gabeko bakardadea edo laguntza-sarerik ez izatea, konfinamendu egoerak larrituta, erakundeen % 60,3k hauteman du hartzaileengan. Datozen hilabeteetara begira, erakundeen % 34,2k uste du nahi gabeko bakardade horri aurre egin beharko dietela hartzaileek.

Erakundeen % 52,2k adierazi du gaur egun hartzaileak **ordaindutako lana galtzeari** aurre egiten ari zaiela. Erakundeen ehuneko berberak adierazi du epe laburrean hartzaile horiek testuinguru berean jarraituko dutela.

Erakundeen erdiak baino gehiagok adierazi du hartzaileak une honetan **osasun-arretako arazoak edo osasuna kaltetzearen arazoak** ari direla jasaten. Datozen hilabeteetara begira, erakundeen % 44k adierazi du, aurreikuspenen arabera, hartzaileek osasuna kaltetzeko arazo horiek izaten jarraituko dutela.

Erakundeen erdiak adierazi du hartzaileek **txirotasunaren igoerari eta/edo material-gabeziari** aurre egin behar diotela. Badirudi arazo hori datozen hilabeteetan handitu egingo dela, hartzaileek txirotasun handiagoa eta/edo material-gabezia izango dutela dioten erakundeen ehunekoa % 5 igotzen baita.

Erakundeen % 45,1ek adierazi du hartzaileek gaur egun **hezkuntza-arazoak** dituztela, hala nola eskola-atzerapena, eskolei jarraipena emateko zailtasunak, hezkuntza-ibilbidea galtzea eta abar. Dena den, epe laburrerako aurreikuspenaren ehunekoa pixka bat jaisten da, erakundeen % 37k adierazi du hartzaileek datozen hilabeteetan hezkuntza-arazo horiek izango dituztela.

Erakundeen % 43,5ek dio uneotan hartzaileek **arazo administratibo eta juridikoak** dituztela, adibidez, atxilotzeak edo justifikatua denean kalean ibiltzeko baimenekin arazoak. Erakundeen aurreikuspenen arabera, egoera hori hobetu egingo da ziurrenik alarma-egoera amaitzean eta konfinamendua arintzearekin batera, hartzaileek epe laburrean arazo administratibo eta juridikoak izango dituztela dioten erakundeen ehunekoa % 26,6koa baita.

Erakundeen % 43,5ek dio, gainera, hartzaileak **ingurune komunitarioan arazoak** ari direla izaten, adibidez, gatazka-arazoak edo arrisku-egoerak. Erakundeen % 30,5ek dio izango dutela hartzaileek epe laburrean arazo hori.

Erakundeen % 41,3k adierazi du hartzaileek **elikadura-arazoak** dituztela, eta % 35,9k adierazi du, epe laburrean, hartzaileek arazo hori izaten jarraituko dutela. Datozen hilabeteetarako aurreikuspenen datua pixka bat jaisten den arren, badirudi elikadura-arazoak izango dituztela 10 erakundetik 3 baino gehiagoko erabiltzaileek.

Erakundeen % 41,3k adierazi du, gainera, hartzaileek gaur egun **ostatu, etxebizitza edo egoitza-bazterkeriarekin** lotutako arazoak dituztela. Arazo horrek, murriztu orde, badirudi datozen hilabetetarako larriagotzeko joera duela, erakundeen % 46,2k uste baitu hartzaileek epe laburrean ostatuarekin lotutako arazoak izango dituztela.

Erakundeen % 36,4k dio hartzaileek **indarkeria, genero-indarkeria barne**, ari direla jasaten, **konfinamenduak larriagotuta**. Datozen hilabeteetarako, % 26,6k aurreikusi du hartzaileek indarkeria-arazoak izango dituztela.

Erakundeen % 36,4k adierazi du hartzaileek **etxean arreta-gabezia** dutela (adin txikikoak, mendekotasun-egoeran daudenak pertsonak...). Epe laburrean, erakundeen % 21,7k aurreikusi du hartzaileek etxean arreta-arazo horiek izango dituztela.

4 erakundetik 1ek baino gehiagok (% 26,6) erregistratu ditu hartzaileen **profilen aldaketak**, eta datozen hilabeteetan are erakunde gehiagok aurreikusten dituzte aldaketa horiek; erakundeen % 38,6k adierazi dute hori. Dibertsifikazio hori, beste faktore batzuen artean, artatutako pertsonen igoerak eragin duela dirudi. Adibidez, buruko osasuneko erakundeek nabarmendu dute ugartu egin direla aurretik loturarik izan gabe erakundera jo duten pertsonak, lehendik arreta ematen zitzaizkien pertsonen gain.

Gainera, erakundeen % 20,7k adierazi du hartzaileek **beste arazo mota batzuk** dituztela, batez ere honako hauekin lotutakoak: laguntza profesionalik eta/edo terapeutikorik ez izatea eguneroko bizitzan; familia-berrantolaketak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko bizi-jarduerak moteltzea, pertsona-profil jakin batzuetarako konfinamenduko neurri bereziak hartzea (bazterkeria larria, etxerik gabekoak, buruko gaixotasunak eta abar), prozesu psikoterapeutikoak eta psikohezitzaileak etenda, zuzeneko arretarik ematen ez delako harrera emozional egokia egiteko zailtasunak, oraindik aurreikusi gabeko eraginak hegoaldeko herrialdeetako hartzaileengan, elkar laguntzeko taldeetara ezin joan edo taldeko elkarrekintza-dinamikak etetea eta ondorioz kasu batzuetan buruko osasunean eta emozionalean hartzaileengan eragin handia izatea. Droga-kontsumoaren igoera ere ikusi da, beste substantzia batzuk kontsumitzeagatik eta haiek aizuntzeagatik edo adulteratzeagatik.

Pertsona horiek orain jasaten ari diren arazo eta egoera batzuk minimiza litezke krisi sozial honetako fase kritikoa gainditutakoan. Baina, epe laburrera begira (2020ko estimazioa), erakundeek diote **baliabide ekonomikorik ez izatea, txirotasunaren igoera eta/edo material-gabezia eta ordaindutako lana galtzea** izango direla hartzaileengan arazo ugariak (orain izaten ari direna baino gehiago), eta hori kezagarria da kontuan hartzen badugu erakunde sozialetako askotan artatutako profilen bereizgarria bazterkeria-egoeran edo -arriskuan egotea dela. Erakundeen lanari dagokionez, nabarmentzekoa da artatutako artean **profil-aldaketa** ere; 2020an zehar izatea aurreikusten da.

4.1.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera

Aldagai ugarien informazio osoa eskaini arren (kontingentzia, eremua, neurria eta erakundeen lurraldea), lehen biek dituzte alde handienak. Eskainitako gainerako informazioak ñabardurak izan ditzake, baina ez dirudi funtsezko alderdik dagoenik.

Artatutako kontingentzia

Artatutako kontingentzien araberako datuak aztertuta, agerian geratzen da hartzailen artean **ostatuarekin, etxebizitzarekin eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak** eta **txirotasunaren igoera eta/edo materialik ez izatea** direla gehien bat bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeek identifikatutakoak.

Elikadura-arazoak eta **baliabide ekonomikorik ez izatea** dira bazterkeria- edo babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeek proportzio handiengan adierazitakoak.

Konfinamendutik eratorritako arazoak badirudi eragin handiagoa dutela mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden eta desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dieten erakundeen hartzailen artean. Bestalde, **etxean arretarik ez izatea** eta **nahi gabeko bakardadea** dira mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeen hartzailen artean gehien ageri direnak.

1. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK HARTZAILEENGAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

HARTZAILEAK	GAUR EGUN				
	Mendeko-tasuna	Bazterkeria	Babesgabetasuna	Desgaitasuna	Beste batzuk
Aldaketak hartzailen profiletan	% 28,6	% 25,4	% 18,8	% 16,7	% 35,5
Osasun-arretako edo osasuna kaltetzearen inguruko arazoak	% 57,1	% 52,4	% 37,5	% 50,0	% 56,5
Ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak	% 28,6	% 54,0	% 31,3	% 22,2	% 43,5
Elikadura-arazoak	% 28,6	% 50,8	% 50,0	% 19,4	% 43,5
Hezkuntza-arazoak	% 14,3	% 52,4	% 87,5	% 16,7	% 46,8
Baliabide ekonomikoen gabezia	% 28,6	% 74,6	% 75,0	% 52,8	% 61,3
Ordaindutako lana galtzea	% 28,6	% 58,7	% 56,3	% 52,8	% 46,8
Txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea	% 14,3	% 63,5	% 50,0	% 30,6	% 53,2
Konfinamendutik eratorritako arazoak	% 85,7	% 69,8	% 50,0	% 83,3	% 61,3
Etxean arretarik ez izatea	% 71,4	% 31,7	% 43,8	% 44,4	% 30,6
Arraila digitalaren ondoriozko arazoak	% 85,7	% 68,9	% 81,3	% 50,0	% 66,1
Nahi gabeko bakardadea, egoerak larrituta	% 100,0	% 68,3	% 62,5	% 61,1	% 46,8
Ingurune komunitarioko arazoak (gatazkak, arrisku-egoerak...)	% 57,1	% 42,9	% 75,0	% 38,9	% 37,1
Indarkeria, genero-indarkeria barne, konfinamenduak larrituta	% 42,9	% 39,7	% 56,3	% 11,1	% 41,9
Arazo administratibo eta juridikoak	% 28,6	% 55,6	% 43,8	% 33,3	% 38,7

Datozen hilabeteetara begira, aipagarria da mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeen ehuneko handiak aurreikusten duela hartzailen profileen aldaketa izatea. Era berean, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dietenen ehuneko handi batek aurreikusi du hartzailen ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak, baliabide ekonomikoen gabezia eta txirotasun handiagoa eta materialik ez izatearekin lotutako arazoak izango dituztela. Eta babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeen ehuneko handi batek aurreikusi du hartzailen baliabide ekonomikoen gabezia izango dutela.

Jarduera-eremua

Erakundeen jardueraren arabera datuak aztertuta, erakundeen artean desberdintasun aipagarriren batzuk badaude, egiten duten jarduerarekiko koherentziaz. Aipagarrienen artean, adierazi behar da **ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak**

proportzio handiagoan identifikatzen dituztela Gizarte Zerbitzuetako eta Sozial-Zeharkakoak diren erakundeek.

Hartzaileen **osasun-arretako arazoak** Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako eta Osasuneko erakundeek adierazten dituzten proportzio handiengan, eta aldiz, **baliabide ekonomikoen gabeziaren** arazoa Enplegu-erakundeen hartzaileen artean da nagusi.

Konfinamendutik eratorritako arazoak badirudi gehiago eragiten dietela Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeen hartzaileei. Gizarte Zerbitzuetakoek adierazi dituzte hartzaileen artean **ingurune komunitarioko arazoak** proportzio handienak ere.

Hartzaileen artean **arraila digitalaren ondoriozko arazoak** batez ere Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako eta Sozial-Zeharkako erakundeek adierazi dituzte.

2. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK HARTZAILEENGAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, EREMUAREN ARABERA. (%)

HARTZAILEAK	GAUR EGUN						
	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapen. Naz. Lank.	Soziala-Zeharkakoa	Beste batzuk
Aldaketak hartzaileen profiletan	% 29,40	% 22,20	% 23,30	% 25,00	% 18,80	% 40,60	% 33,3
Osasun-arretako edo osasuna kaltetzearen inguruko arazoak	% 70,6	% 29,6	% 57,5	% 12,5	% 68,8	% 65,6	% 0
Ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak	% 35,3	% 25,9	% 52,1	% 18,8	% 37,5	% 46,9	% 33,3
Elikadura-arazoak	% 17,6	% 22,2	% 49,3	% 18,8	% 56,3	% 56,3	% 33,3
Hezkuntza-arazoak	% 35,3	% 29,6	% 43,8	% 56,3	% 68,8	% 50,0	% 33,3
Baliabide ekonomikoen gabezia	% 47,1	% 74,1	% 65,8	% 50,0	% 68,8	% 68,8	% 33,3
Ordaindutako lana galtzea	% 58,8	% 48,1	% 57,5	% 31,3	% 43,8	% 56,3	% 33,3
Txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea	% 29,4	% 48,1	% 50,7	% 50,0	% 56,3	% 62,5	% 33,3
Konfinamendutik eratorritako arazoak	% 94,1	% 51,9	% 80,8	% 62,5	% 37,5	% 62,5	% 33,3
Etxean arretarik ez izatea	% 47,1	% 33,3	% 41,1	% 25,0	% 12,5	% 43,8	% 0
Arraila digitalaren ondoriozko arazoak	% 47,1	% 48,1	% 68,5	% 56,3	% 75,0	% 90,6	% 33,3
Nahi gabeko bakardadea, egoerak larrituta	% 64,7	% 59,3	% 69,9	% 43,8	% 31,3	% 62,5	% 33,3
Ingurune komunitarioko arazoak (gatazkak, arrisku-egoerak...)	% 41,2	% 29,6	% 56,2	% 31,3	% 31,3	% 43,8	% 0
Indarkeria, genero-indarkeria barne, konfinamenduak larrituta	% 23,5	% 25,9	% 35,6	% 43,8	% 43,8	% 46,9	% 33,3
Arazo administratibo eta juridikoak	% 23,5	% 48,1	% 49,3	% 25,0	% 31,3	% 56,3	% 0

Datozen hilabetetarako estimazioan, aipagarria da Gizarte Zerbitzuetako erakundeen ehuneko handiak aurreikustea hartzaileek baliabide ekonomikoen gabezia izango dutela. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako erakundeen ehuneko handiak ere aurreikusten du hori, baita txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea ere hartzaileen artean.

Erakundearen neurria

Erakundeen neurriaren arabera datuak aztertuta, ikus daiteke erakunde handiak nahiz txikiak hartzaileen artean arazo berberak ari direla detektatzen. **Konfinamendutik eratorritako arazoak, arraila digitalari lotutakoak** edo **baliabide ekonomikoen gabezia** dira erakunde handiek zein txikiak gehien bat adierazitako arazoak.

Denek arazo berberak antzematen dituzten arren, erakunde handietan gehiago ikusten dituzte aztertutako faktoreak, hezkuntzako eta elikadurako arazoak dagokienez izan ezik. Aipatzekoa da haurrekin eta haien familiekin lotutako arazoak izan litezkeela, aisialdiko erakunde txiki batzuek kolektibo horiekin lan egiten duten neurrian.

3. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK HARTZAILEENGAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, NEURRIAREN ARABERA. (%)

HARTZAILEAK	GAUR EGUN	
	Txikiak eta ertainak	Handiak
Aldaketak hartzaileen profiletan	% 26,9	% 26,4
Osasun-arretako edo osasuna kaltetzearen inguruko arazoak	% 46,2	% 56,6
Ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak	% 33,3	% 47,2
Elikadura-arazoak	% 43,6	% 39,6
Hezkuntza-arazoak	% 50,0	% 41,5
Baliabide ekonomikoen gabezia	% 55,1	% 70,8
Ordaindutako lana galtzea	% 50,0	% 53,8
Txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea	% 51,3	% 50,0
Konfinamendutik eratorritako arazoak	% 65,4	% 70,8
Etxean arretarik ez izatea	% 34,6	% 37,7
Arraila digitalaren ondoriozko arazoak	% 66,7	% 66,0
Nahi gabeko bakardadea, egoerak larrituta	% 53,8	% 65,1
Ingurune komunitarioko arazoak (gatazkak, arrisku-egoerak...)	% 34,6	% 50,0
Indarkeria, genero-indarkeria barne, konfinamenduak larrituta	% 34,6	% 37,7
Arazo administratibo eta juridikoak	% 34,6	% 50,0

Datozen hilabeteetara begira, gai nabarmenetako bat da erakunde handien ehuneko handi batek identifikatzen duela hartzaileek baliabide ekonomikoen gabezia izango duela.

Lurralde historikoa

Datuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, joerak hiru lurraldeetan berberak direla ikus daiteke. **Konfinamendutik eratorritako arazoak, arraila digitalari lotutakoak** edo **baliabide ekonomikoen gabezia** dira erakundeek gehien bat adierazitako arazoak, jarduera-lurraldea edozein izanik ere.

Datuek erakusten dutenez, lurralde batzuetan, arazo batzuk batez bestekotik goraxeago daude, beste lurraldeetan ez bezala. Hala ere, lurralde bakoitzean parte hartu duten erakunde motaren arabera baldintzatuta dago datu hori neurri handi batean, beraz, ez dagokio azterketa sakonagoa egiterik.

4. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK HARTZAILEENGAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. (%)

HARTZAILEAK	GAUR EGUN		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Aldaketak hartzaileen profiletan	% 13,2	% 31,4	% 26,8
Osasun-arretako edo osasuna kaltetzearen inguruko arazoak	% 60,5	% 46,7	% 58,5
Ostatu, etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak	% 42,1	% 42,9	% 36,6
Elikadura-arazoak	% 42,1	% 41,9	% 39,0
Hezkuntza-arazoak	% 44,7	% 48,6	% 36,6
Baliabide ekonomikoen gabezia	% 60,5	% 66,7	% 61,0
Ordaindutako lana galtzea	% 50,0	% 56,2	% 43,9
Txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea	% 57,9	% 52,4	% 39,0
Konfinamendutik eratorritako arazoak	% 63,2	% 69,5	% 70,7
Etxean arretarik ez izatea	% 23,7	% 39,0	% 41,5
Arraila digitalaren ondoriozko arazoak	% 63,2	% 64,8	% 73,2
Nahi gabeko bakardadea, egoerak larrituta	% 55,3	% 60,0	% 65,9
Ingurune komunitarioko arazoak (gatazkak, arrisku-egoerak...)	% 42,1	% 44,8	% 41,5
Indarkeria, genero-indarkeria barne, konfinamenduak larrituta	% 34,2	% 39,0	% 31,7
Arazo administratibo eta juridikoak	% 42,1	% 47,6	% 34,1

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da hiru lurralde historikoetako erakundeen ehuneko zabalak identifikatzen duela hartzaileen artean txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea eta baliabide ekonomikoen gabezia izango dutela.

4.1.3. Begirada espezifikoa bat kolektibo jakin batzuei

EHSSeko erakundeek kolektibo ugariara bideratzen dituzte jarduerak edo kolektibo ugariari ematen die arreta; horiek Covid-19aren krisiari modu askotara ari dira aurre egiten eta zaurgarritasunak markatutako egoerak ari dira bizitzen. Zerbitzu eta jarduerak itxi izanagatik eta konfinamendua dela eta, pertsona askok egoera gatazkatuak bizi behar izan ditu, eta askotariko beharrak azaldu dira. Jarraian, zehatz deskribatu ditugu hartzaileen kolektibo batzuen egoera, arazo edo behar horiek.

Adinekoak

Adinekoen kasuan, haien gogo-aldarteak bilakaera izan du eta, batzuetan, konfinamenduetako asteak pasatu ahala, behera egin du. Alarma-egoeraren hasieran, nolabait aldi baterako egoera izatearen sentipena zegoen, baina konfinamendua luzatu ahala, sentipena aldatu egin da. Laguntza-zerbitzuen kasuan, telefono bidezkoak izatera pasatu dira, eta alarma-egoeraren hasieran adinekoak oso harbera eta deiengatik eskertuta zeudela hautematen zuten, baina era berean, antzeman dute **gogo-aldartea eta egoera psikologikoa nabarmen jaitsi dela**.

Erakundeek nabarmentzen dute adinekoak indartsu mantentzen saiatzen direla, baina **kezkatuta eta erasanda** daude eta hori hautematen dute bai osasun-egoera onean eta aktibo dauden hartzaileen profiletan, bai mendekotasun-egoera larrietan daudenetan.

Adinekoek konfinamenduko **testuingurura egokitzeko** eta parte-hartzeko moduak bilatzeko duten gaitasunen irakurketa oso positiboa ere egiten da, batez ere aktiboenen artean. Berezi nabarmentzen da komunikazio digitalerako tresnetara sartzeko bultzada. Pertsonak beste komunikazio modu batzuk ezagutzen eta berriz ezagutzen ari dira, eta familiek rol hezitzailea dute arlo horretan.

Osasun-egoerari buruz ziurgabetasun handia hautematen da. Adinekoek kutsa dezaketen edo ez, kalera irteteko arriskuak zein diren eta kutsadurak nola saihestu eta antzeko gaiei buruzko

informazioa eskatzen dutela hauteman dute erakundeek. Horrez gain, espazio irekiekiko, kalera irteteko gero eta beldur handiagoa ere hautematen dute, konfinamendua amaitzean ere luza daiteke hori eta ondorio larriak izan ditzake adinekoen osasunean. Etxe eta egoitzetako espazio seguruetan babesten dira, baina bakardadea handitzen ari zaie.

Adinekoekin eta bereziki egoitzetan lan egiten dute erakundeei kezka handiena eragiten dien gaietako bat **heriotzak eta doluak** dira. Pertsona horien gertuko ingurunean pertsonak hiltzen ari dira eta kezka eragiten du hartzaileen artean alarma-egoeran ezarritako mugak direla eta egin ezin diren dolu horiek zer eragin izango duten (baita boluntario eta ordainpekoen artean ere).

Egoitza arloan pertsonen gogo-aldartea are gehiago okertu dela ikusi dute. Bai adinekoen artean, bai ordainpekoen artean **beldur eta presio sozialaren sentipen** handia dago.

Adinekoen egoitzetan segurtasun-sentipena funtsezkoa da eta une honetan baliteke, batzuetan, aurkako transmititzen aritzea, larrialdi-egoera ikusita, profesionalak musukoarekin eta plastikozko jantziakin... Etengabeko beldur-sentsazioa dago. Egoitzetan zeuden eta etxera itzuli diren adinekoen kasu urrietan, familiako estres maila handiak detektatu dituzte.

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoen kasuan, **higadura handitzen ari da** bai maila fisikoan, bai mugikortasunari dagokionez, baita buruari dagokionez ere dementzien kasuan. Familiek ez dute gaitasunik ezta baliabiderik ere zaintza espezializatu horiek emateko, eta erakundeek zaintzaileak hil diren kasuren bat ere topatu dute.

Erakundeek hausnarketa egin dute adinekoek **“bizia mantentzearen”** eta **“bizitzearen”** artean bizitzen ari diren tentsioaren inguruan. Nolabait bizitza, osasuna babesten ari dira, baina giza kontaktua eta kontaktu soziala asko murriztu da. Harreman asko teknologia berrien bidez izaten dira eta egoitzetan laguntzen ari diren pertsona asko babes-jantzien bidez eta distantziak mantenduz erlazionatzen dira.

Osasun eremutik ari gatzaizkie adinekoek erantzunak ematen, eta funtsezkoa da, baina adinekoen **zaintza emozionala eta harreman sozialak** ahazten ari gara agian. Ildo horretan, erakundeek kezka agertu dute horrek izan ditzakeen ondorioengatik.

Haurrak eta nerabeak, eta familiak

Haur eta nerabeen eta familien erakundeen artean, konfinamendutik eratorritako **hezkuntza-arazoak** dira (eskolak jarraitzeko zailtasuna, eskola-atzerapena eta abar) erakunde gehienek adierazten dituztenak (% 87). 10etik 6k inguruk baliabide ekonomikoaren gabezia, **konfinamendutik eratorritako arazoak eta arraila digitalaren ondoriozko arazoak** (Internetarako konexiorik, ordenagailurik ez izatea, gaitasunak, desinformazioa, eskola-atzerapena eta abar) ere hautematen dituzte.

Oro har, umeek eta familiek aurre egin beharreko egoera nagusiak izan dira, alde batetik, konfinamenduarekin lotutakoak, horrek dakarren higadura emozionala eta etxe askotan bizi duten **antsietate eta estres** egoera. Familia-ingurune aztoratuetan, arazotsuetan eta biolentoetan dauden umeen kasuan, hori larritu egin liteke. Aisialdiko erakunde batzuek adierazi dute zeinen zaila den kasu horien jarraipena egitea, baita adingabeko horiekin komunikatzeko sortu behar dituzten estrategiak ere; izan ere, egoera normal batean, espazio soziohezitzaile informalen bidez (ludoteka, udalekuak, aisialdi taldeak eta abar) lagunduago egongo lirateke.

Bestalde, nerabe batzuk konfinamendua hasi zenetik hobeto daudela detektatu dute. Testuinguru normalizatu batean erasoak (bullyinga eta abar) jasaten zituztenek edo harremanetarako zailtasunak zituztenek baliteke konfinamenduan segurtasuna sentitu izana, eta horrek agerian uzten du eskola-testuinguruan bizi izandako egoeren gogortasuna. Horrek kezka eragiten du normaltasunera itzultzea gero nolakoa izan litekeen.

Bestalde, hurrek eta familiek **arraila digitalarekin** lotutako arazoei eta hezkuntza-arazoei ere egin behar izan diete aurre, bereziki egoera zaurgarrienean dauden familiek. Gailu teknologikoak izateko aukerarik ez duten edo seme-alabei laguntzeko hizkuntzaren behar besteko ezagutzarik ez duten familien kasuan, eskolen jarraipena egitea zaila da. Erakundeek adierazi dute ume batzuek harreman oro galdu dutela hezkuntza-laguntzako baliabideekin, baina detektatu dutenez, batzuk ikastetxera aurrez aurre joaten zirenean baino motibatuago daude (beste tresna batzuk erabiltzeagatik, laguntza indibidualizatuagoa eta egokitua hautemateagatik eta abar).

Gainera, erakundeek kezka agertu dute familiek udan eta hurrengo ikasturte hasieran izango duten egoerarekin, uda-garaian aisialdiko jarduerak eta **jarduera ludikoak bertan behera** geratuko direla aurreikus baitaiteke, eta denbora tarte luzean ume asko egituratutako jarduerarik gabe egongo dira, euskara praktikatu gabe eta abar. Gainera, udako aisialdi hezitzaileko jarduerak, modu partzialean behintzat, familia zaurgarrietako umeen arraila orokorraren eragina arin lezakete.

Erakundeek kezka adierazi dute, horrez gain, umeen **osasun eta elikaduraren** inguruan ere, bereziki elikadurarako jangela-bekak funtsezkoak zituzten familietako umeen kasuan.

Familia askoren **ekonomiak** eragin handia jasan du: familia batzuk larri zeuden, eta orain, jarduera ekonomikoak geldituta, egoera oso zailak ari dira bizitzen, esaterako, langile autonomoen familiak, enplegu prekarioak dituztenenak eta abar. Bazterkeria-arriskuaren egoerak dagoeneko bazterkeria-egoera bihurtzen ari dira.

DSBE duten pertsonen egoera ekonomikoa Covid-19aren krisia hasi aurretik enplegu prekarioak zituzten pertsonen egoera baino hobea dela ere esaten dute, eta krisiak iraun bitartean ezin dute laguntza ekonomikorik eskuratu. Lehen gertatzen ez ziren indarkeria-egoerak ere hautematen dira, badirudi alarma-egoera ezarri zenetik bizi izandako lan-prekarietatearen edo arazo ekonomikoen ondoriozkoak direla.

Kezka eragiten du, bestalde, uneotan gertatzen ari diren **genero-indarkeriako eta banantze** egoeren kudeaketak ere, hitzarmen arautzaileak sinatzea zaila ari baita izaten.

Desgaitasun fisikoa eta psikikoa duten pertsonak

Desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien 10 erakundetatik 8k adierazi dute galdetegian hartzaileek **konfinamendutik eratorritako arazoei** egin behar dietela aurre (arazo psikologikoak, orain sortutakoak edo larriagotutakoak, gatazkak, arreta-gabezia, erreferentziak galtzea...). Gainera, erakunde horietatik erdiek baino gehiagok, Enplegu Zentro Berezi batzuk barne, adierazi dute **baliabide ekonomikoen gabezia eta ordaindutako lana galtzea, eta nahi gabeko bakardadea** edo laguntza-sarea falta izatea ere badituztela.

Desgaitasun fisiko edo sentsoriala duten pertsonen kasuan, **etxean arretarik ez izatea** gertatzen zaie, lehen egiten zitzaien bezala, eta hori nabarmendu egiten da elikagaiak edo sendagaiak erosteko laguntza behar izatean, batez ere, baina baita eguneroko bizitzako oinarritzko zereginak egiteko ere. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsona batzuk urruntze sozialak ezarritako segurtasun-distantzia gordetzeko izaten ari diren zailtasuna ere agerian geratu da.

Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsona batzuen kasu zehatzetan, erakundeek adierazi dute egoera asko ari direla erregistratzen. Kasu batzuetan hartzaileek ondo daramate, errutinatan egituratutako egunerokotasuna daramatelako, baina beste kasu batzuetan (jokabide-arazoak, morbilitateak eta abar) familiek **konfinamenduaren ondorioz egoera larriagotu** egin zaiela ikusten dute, nahiz eta etxeko laguntza eskaini. Hartzaileek eta familiek aurre egin beharreko beldur nagusia ziurgabetasuna da, ez dakitelako noiz itzuliko diren bizitza normalizatua izatera. Gainera, familia batzuk telelanean ari dira eta **zailtasunak dituzte kontziliaziorako**.

Adimen-desgaitasuna edo desgaitasun kognitiboa duten pertsonen kasuan, detektatutako egoeretako bat da alarma-egoeraren **mugak** eta nahitaezko konfinamendua **ulertzeko** hartzaile batzuek duten zailtasuna. Hala ere, erakundeek kolektibo hori erakusten ari den erresilientziarako gaitasuna nabarmendu dute. Bestalde, tratamendu terapeutikorik jasotzen ez dutenez (logopedia, fisioterapia, terapia okupazionala eta/edo estimulazioa), erakundeek ohartarazi dute hartzaileen osasuna, bilakaera eta egoera okertu egingo dela.

Familiak eta laguntzako sare naturalak dira kolektibo horren zutabe nagusia eta haiek ari dira horien ongizatea bermatzen, arnasa hartzeko aukerarik gabe eta bizitzen ari garen egoeraren salbuespeneko egoera ulertuta.

Buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak

Galdetegiarri erantzun diotenean, buruko osasun arazoak dituzten pertsonak eta haien familiek ohartarazi dutenez, batez ere **konfinamendutik eratorritako arazoak, nahi gabeko bakardadea** edo sare sozialik ez izatea eta **ingurune komunitarioko arazoak** dituzte. 10 erakundetatik 8k baino gehiagok uste du hartzaileek arazo horiek dituztela.

Buruko gaixotasuna duten pertsonen eta haien familiei orain arte arreta eskaintzen zitzaien baliabideak ixteak zuzeneko eragina du haiengan. Eta erakundeen aurreikuspenen arabera, konfinamendu-egoeran eta zerbitzuak itxita denbora gehiagoz iraunez gero, **buruko osasun-arazoak dituzten pertsonen bilakaera eta pronostikoa larri kaltetuko da**.

Buruko osasun-arazoak edo buruko gaixotasunak dituzten pertsona batzuek zenbait fase edo egoera izan dituzte alarma-egoera hasi zenetik. Lehen asteetan, konfinamendua aldi baterakoa zela uste izan zuten. Baina alarma-egoera luzatuta konfinamenduak luze joko zuela ikusita, pertzepzio hori aldatu egin zen eta erakundeek pertsona batzuen antsietate mailak igo zirela eta

egoera **larriagotu** zitzaiela ikusi zuten (deskonpentsazio psikopatologiko gehiago, eta kasu larrietan ospitaleratze psikiatrikoak eta antzekoak ekar ditzake).

Bakarrik edo familiakoekin bizi diren pertsonen **antsietatea handitu** dela nabaritu da bereziki, batez ere erreferente-galeragatik eta itxialdi-egoeragatik, eta horrek ekarri du antsietatea arintzeko sendagai gehiago hartzea, deskonpentsazio-egoerak eta beste nahasmendu batzuk, hala nola loarena. Tutoretzapeko etxeetan bizi diren pertsonen egoera ez da hainbeste aldatu.

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonekin bizi diren familia batzuetan **erantzun hobekak ikusi dira bizikidetzaren-estrategietan**, buruko gaixotasuna duen semea edo alaba rola gehiago hartzen ari delako eta etxean egiten duen ekarpenaren kontzientzia hartzen duelako, adibidez, gurasoen ordezkari supermerkatuara joateko ardura hartzen badu. Bizikidetzaren higadura zegoen beste batzuetan, gatazka handiko egoeretan, batez ere gurasoetako batekin, erakundeek laguntzeko lan handia egin behar dute egunotan.

Indarkeria jasaten duten emakumeak

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik indarkeria jasaten duten emakumeei dagokienez, konfinamendu-aldian kasuen igoera gerta zitekeela esan baliteke ere, **badirudi ez dela gertatu**, edo gutxienez, ez dira baliabideetara iritsi. Baliteke tratu txarren egoera jakin batzuetatik ateratzeko beharra bigarren plano batera pasatu izana konfinatuta egotearen betebeharra eta osasun-arriskua ikusita. Independentzia ekonomikoa ere faktore erabakigarria izan liteke, lan egiteko ezintasunagatik mugatuta gera zitekeen eta. Testuinguruak ez du laguntzen etxetik ateratzea, beste pertsona batzuekin kontaktua izatea, kudeaketa administratiboak, epaiketak eta abar ekar ditzaketen prozesuak aktibatzen. Aipatzekoa da Emakundeek argitaratutako eta erabiltzen hasi diren datu batzuetan bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriari lotuta salaketan jaitsiera eta familia barruko indarkeriaren igoera (bikotekidea ez den familiako gizona izateko batek egindakoa) agertu dela.

Erakundeetan (batez ere bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriaren kasuak hartzen dituzte) kezka handiz hartu dute tratu txarren emailearekin batera etxean dauden emakumeen **isolamendu soziala**. Isolamendu soziala indarkeria-egoeren ezaugarria da eta testuinguru honetan modu oso kezkagarrian handitu da, indarkeriaren biktimak askotan dituzten laguntza-sareetatik inkomunikatuta utzi dituzte. Bestalde, ez ditugu ahaztu behar konfinamenduan indarkeria-egoera aktiboa edo ezkutukoa duten etxeetan bizi diren **adingabekoez**.

Indarkeria-egoera jasaten duten emakumeei zuzeneko arreta ematen dieten baliabideetan **atzerakadak** ari dira detektatzen emakumeekin egiten ari diren **prozesuetako batzuetan**, eta batzuetan, emakumea erasotzailearekin bizi den egoera jakin batzuetan, erasotzailearekiko hurbilketa batzuk. Beste kasu batzuetan ere, “habia-etxe” modalitatean **zaintza partekatua** dagoen kasuetan, erasotzaileak etxean elkarrekin bizitzen denbora ematen duela detektatu dute adingabekoak ikusi ahal izateko, edo beste kasu batzuetan, emakumeak etxea utzi behar izan duela, senitartekoekin bizitzera joan, normalean adin handiko gurasoekin, eta horrek ekar dezakeen osasun-arriskuarekin.

Baliabide batzuek adierazi dutenez, “normaltasunera” itzultzeak **kasuak berriz agertzea** ekar dezake, hain kontrolatutako une hauetan. Gainera, gaur egun geldirik dauden prozesu judizialak martxan jartzea ere aurreikusten da.

Etorkinak

Migratzaileen kasuan, egungo testuinguruak **ziurgabetasun eta informazio-gabezia** handia sortu du atzeritarren inguruko lege-egoerei, baliabideei, laguntzei eta abarri dagokienez. Krisi honetan pertsona eta kolektibo ugari laguntza emateko araudi mailako garapen eta proposamen asko zabaldu direnez (autonomoei, alokairuak ordaintzeko, etxeko langileentzat...), ez dago argi nola ari den eragiten migratzaileen kolektiboan zehazki (laguntzak jaso ditzaketen ala ez, zer mailatan eragiten dien eta abar).

Garapen horietako asko gero atzeritarren bulegoetatik interpretatu egin behar izaten dira eta erakundeek etengabe zerbitzu juridikoekin kontsultak egin behar izaten dituzte araudiak nola interpretatzen diren ikusteko. Harreman telematikoak prozesua nabarmen zailtzen du. Nahasmena, kontrako informazioa eta informazio okerra, itxaropen faltsuak, zurrumurru edo gezurrak eta abar sortzen diren testuinguruan.

Migratzaile batzuek ordaindutako lana galdu dutenez, egoera larriagotu egin zaie, edo baliabide ekonomikoekin arazoak dituzte oinarrizko baldintzetako batzuk betetzen ez dituztenez (errola eta abar) **DSBE jaso ezin dutelako**.

Kolektiboari, laguntza-sare informal mugatua izatea bereizgarri izanik, **sare informaletarako sarbide hori mugatuta** geratu zaio. Ohiko espazioetan edo lotura duen talde eta kolektiboekin elkartzeko aukerak mugatu egin dira, eta horrek haustura sozial handia ekarri du; egoera zail honetan laguntzak are gehiago murriztea.

Datu kuantitatiborik ez dagoen arren, baliabide batzuek nabarmendu dute **etorkinen seme-alabek arraila digitala eta/edo soziala/hezkuntzako** izan dezaketela ikastetxeetara eta prestakuntzako baliabideetara konektatuta mantentzeko garaian (baliabiderik ez izatea, hizkuntza ezagutzen ez dutelako eskolako lanetan lagundu ezin duten gurasoak eta abar).

Txirotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak

Txirotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin lotuta, datuek erakusten dute **baliabide-gabezia, arraila digitalaren ondoriozko arazoak edo txirotasuna handitzea eta/edo materialik ez izatea** direla kolektibo horri arreta ematen dioten erakunde askok ikusten dituen arazo nagusiak.

Oro har, ohartarazi dute txirotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak Covid-19aren krisia hasi zenetik arazo ugari ari direla izaten. **Enplegu-suntsiketak** enplegu prekarioak edo ezkutuko ekonomian (egoera prekarioan zeuden etxeko langileak) lanean ari ziren pertsona eta familiei erasan die, eta horrek baliabide ekonomikoaren gabezia nabarmena eragin die. Erakunde batzuek detektatu dutenez, gainera, DSBE jasotzen duten familia batzuk hobeto daude kontratu prekarioak dituztenak edo zituztenak baino, horiek aurrezkiak gastatzen ari baitira.

Egoera larritu egiten da, gainera, eskura daitezkeen baliabideei buruzko **informazio-gabezia** dagoenean. Kualifikazio baxuko pertsonen edo iraupeneko familia-ekonomien kasu horietan, lan munduan berriz sartzea oso zaila dirudi, enplegua galtzen lehenengoak eta lan-merkatura itzultzen azkenak izaten baitira.

Ostatu mailako arazoak direla ere etxebizitza topatzeko arazoak, pisuetan pilaketak edo baldintza prekarioetan pentsioetan bizi diren pertsonak ere topatu dira. Gainera, gizarte-bazterkeria larrian dauden pertsona batzuk, buruko osasunaren edo substantzien

mendekotasuneko arazoak izan ditzaketenak, kalean bizi ohi dira eta ez dute ohiturarik pertsonen zirkulazioa mugatzeagatik jasan behar izan duten bizikidetzako bizimodurako.

Alde horretatik, erakundeek esfortzu handia egin dute instituzioek etxerik gabeko pertsonak edo muturreko egoeretan daudenak hartzeko egokitutako espazioak martxan jartzeko (erabiltzaile profila aldatu zaiela ikusi duten herritarrentzat, oro har, bideratutako aterpetxeak, erakunde sozialetako profesionalen laguntzarekin udalerrietan egokitutako kiroldegiak eta abar).

Gainera, alarma-egoera gainditutakoan esku-hartzen jarraitu ahal izateko pertsona horiekin ibilbideak sortzeko saiakeran ari dira, eta oso beharrezkotzat jo dute. Aipagarria da egiten ari ziren neurketetan kontabilizatu gabeko etxerik gabekoen egoera azalatu dela egungo egoeran, beraz, pertsona horiekin egiten den egungo esku-hartzea badirudi funtsezkoa izango dela etorkizunean gizarteratzeko ibilbideak sortzeko.

Oro har, **txirotasuneko eta bazterkeriako egoerak larritu egin direla** ohartarazi dute. Krisi aurretik bazterkeria-arrisku arinean edo zaurgarritasun arinean egon litezkeen pertsonen, krisi ondoren, egoera okerragotu egin zaie. Gizarte-bazterkeria larrian zeuden pertsonen are egoera okerragoa dute orain. Bazterkeriaren dimentsio aniztasunaren isla da hori.

Adikzio-arazoak dituzten edo droga-mendekotasuna duten pertsonak

Datuek erakusten dute **konfinamendutik eratorritako arazoak** (orain sortutako edo larritutako arazo psikologikoak, gatazkak, arreta gabezia, erreferentziak galtzea...) eta **nahi gabeko bakardadea** edo laguntza-sarerik ez izatea direla adikzio-arazoak dituzten edo droga-mendekotasuna duten pertsonen arreta ematen dieten erakundeen arazo nagusiak. Gainera, 10 erakundetik 6k adierazi dute ostatu, **etxebizitza eta/edo egoitza-bazterkeriarekin lotutako arazoak, baliabide ekonomikoen gabezia edo arraila digitalaren ondoriozko arazoak** dituztela.

Erakundeek kasu batzuetan **drogen kontsumoa igo** dela detektatu dute, batez ere beste substantzia batzuen kontsumoagatik edo haiek aizuntzeagatik. Adikzio-arazoak dituzten pertsonen zuzeneko esku-hartzerik ez egiteak nabarmen larritzen du haien egoera eta erreferentzia-galera eragiten du, osasuna gehiago kaltetzea eta gatazka-arazoak, besteak beste. Egungo testuinguruan adikzioen arazoa behar bezala lantzeko dauden zailtasunak eta banakako arretak duen garrantzia ere nabarmendu dute erakundeek.

Era berean, erakundeek adierazi dute batez ere kontsumo aktiboa duten pertsonen **konfinamendua betetzeko zailtasunak** dituztela. Substantziak lortzeko arazoei gehitzen zaizkie eguneroko errutinarik ez izatea eta sendagaien jarraipena egiteko zailtasuna. Kontsumo-arazoak, gainera, txirotasun-egoerekin edo -arriskuekin bat datozen kasuetan, ostatu-alternatibak urriak direla detektatu da.

Gaixotasunak dituzten pertsonak (kronikoak, arraroak...)

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen kasuan, **osasun-krisiaren eragina** bereziki nabarmena da. Gaur egun ez da azterketetara joaten, ez da probarik egiten, operazioak atzeratzen dira presazkoak ez badira, eta horrek eragingo du itxaron-zerrendak luzatzea, eta hala, alarma-egoera pasatu ondoren kolapsoa sor liteke. Gaixotasunak dituzten pertsonen osasuna berriz ere noiz artatu ahal izango duten ez jakiteak larritasuna eta ziurgabetasuna sortzen du hartzaielengan eta familiengan. Are gehiago arretarik ez emateak haien ongizatean atzerakada nabarmena eragin dezakeenean.

Askatasunik gabeko pertsonak

Askatasunik gabeko pertsonen kasuan, **espetxe-aldia luzatzen** ari zaie batzuei, giza baliabideetarako gaur egun sarbiderik ez dutelako (espetxeko unearen arabera aukerak izan arren). **Programatutako irteerak eta baimenak** ere bertan behera geratu dira, baita bisitak eta paketeak jasotzeko aukera ere, eta hala, presoak normalean izaten dituzten laguntza-sarerik gabe geratu dira. Horrek lehendik zuten isolamendua are gehiago handitzea dakar.

4.2. Zerbitzu eta jardueretan duen eragina


4.2.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena

EHSSeko erakundeek hartzaileei bideratutako zerbitzuak ematen dituzte eta jarduerak garatzen dituzte. Covid-19aren krisiaren etorrerarekin, zerbitzu eta jarduera ugarik jasan dituzte aldaketak modu batean edo bestean.

Gaur egun, **zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea** eta **jarduera jakin batzuk etetea edo bertan behera geratzea** dira erakundeen artean zabalduen dauden arazoak. Epe laburreko estimazioan, erakundeen ehuneko zabalak aurreikusi du **zerbitzu edo jardueren aldaketa edo berriz orientatzea arazo gisa** mantenduko dela (nahiz eta hala uste dutenen proportzioa jaitsi egiten den egungo egoerarekin alderatuta).

Egungo datuekin alderatuta hauetan ikusten da igoera: **gehiegizko karga zuzeneko arretan**, baita **zerbitzu edo jarduera berriak sartzean** ere, edo **beste funtzio sozial batzuei** lotutako jardueraren igoeran (beharrak detektatzea, harrera, sentsibilizazioa eta salaketa...).

2. GRAFIKOA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK ZERBITZU ETA JARDUERETAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK. (%)



Zehazki, erakundeen % 83,2k adierazi du zerbitzu edo jardueretan **aldaketak edo berriz orientatzeak** izan dituela (onlineko formatura bihurtzea, telefono bidezko laguntza...) eta % 48,9k aurreikusi du epe laburrean zerbitzu edo jarduerak aldaketak edo berriz orientatzeak jasango dituela.

Erakundeen % 81ek adierazi du **jardueraren batzuk eten edo bertan behera geratu** zaizkiela. Hala, jarduera zehatz asko eta asko aipatu dituzte utzi direla bertan behera askotariko erakundeetan: prestakuntzako aurrez aurreko jarduerak eta gizarte-integratioak, desgaitasuna duten pertsonen txangoak, haurren kanpaldiak, haur zaugarrien eskola-errefortzua, migratutako pertsonen gizarteratzerako beharrezkoak diren gaztelania-eskolak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonekin pisuetan taldekako tailerrak eta abar. Datozen hilabeteetara begira, % 41,8 murriztu da jarduerak bertan behera utzita izango dituztela aurreikusten duten erakundeen ehunekoak.

Erakundeen % 48,9k **hartaileei ematen dien arreta murriztu** behar izan du (kontsulta gutxiago egitea, esku-hartzeak bertan behera uztea eta abar) eta % 22,8k arreta-murrizketa hori datozen hilabeteetan mantenduko duela uste du.

Bestalde, erakundeen % 33,2k **zuzeneko arretan gehiegizko kargari** egin behar dio aurre (etxerik gabeko pertsoneri, adineko egoitzei edo desgaitasuna dutenei laguntza eman, indarkeria jasaten duten emakumeen egoitza-zerbitzuetan eta abar). Ehuneko hori 2020ko estimazioan igo egiten da, erakundeen % 44,6k uste baitu epe laburrean arretan gehiegizko karga izango duela.

Erakundeen % 46,2k zerbitzuen **hartaileen eskaeretan aldaketak** adierazi ditu, adibidez, onlineko izapideak egiteko laguntzak, oinarriko beharrak asetzeko laguntza ekonomikoak (elikadura, alokairua eta abar), Covid-19ari buruzko osasun-informazio handiagoa eta baliabideetarako sarbideari buruz, telefono bidezko laguntza (psikologikoa, seme-alabekiko harremana arautzekoa...), onlineko komunikazioko eta arreta eta entzuteko eskaerak, bakardadea saihesteko onlineko jarduerak eskatzea edo hezkuntzako laguntza-eskaerak. Gainera, % 43,5ek aurreikusi du hartaileen eskaeretako aldaketa hori epe laburrean mantendu egingo dela.

Horrez gain, erakundeen % 46,2k **zerbitzuren bat itxi** behar izan du (eguneko zentroak, okupazio zentroak, aisialdi-zerbitzuen itxiera, arnaguneak, jendaurreko salmenta-zerbitzua, ludotekak, txertatze-enpresak eta abar) eta % 20,1ek epe laburrean egingo duela aurreikusi du.

Zehazki, zerbitzuren bat ixten ikusi dutenen artean, hamarretik ia hiruk uste du zerbitzu horiek berriz ez irekitzeko arriskua dagoela. Batez ere ostalaritza, cateringa, salmenta eta garbiketako zerbitzuak dira, taldekako jarduerak (topaketa-ekintzak...), arnaguneko jarduerak eta eguneko zentroak edo haurrekin eta gazteekin lotutako jarduera edo tailerrak: aisialdiko eta baliabideen kudeaketako jarduerak hala nola ludotekak edo udalekuak, ikastetxeei lotutako zerbitzuak (laguntza eta abar), egoitza-harreran dauden nerabeei arreta emateko programak, gazte-bermearen sisteman izena emandako gazteei bideratutako proiektuak eta abar.

Zerbitzu horiek behin betiko ixteari lotuta adierazitako arrazoi nagusiak baliabide ekonomikoetara lotutakoak dira, batez ere finantzaketa publikoarekiko dagoen ziurgabetasuna dela-eta, edo urruntze sozialeko baldintzekin lotutakoak, aurrez aurreko eta/edo taldeko edozein jarduera eragozten edo zailtzen baitute.

Erakundeen % 41,8k zerbitzuak ematea ez den **bestelako funtzio sozial batzuei lotutako jarduera** handitu du, eta horiek eskubideen sustapen, salaketa, sentsibilizazio edo intzidentziarekin lotutakoak dira. Ehuneko hori pixka bat handitzen da datozen hilabeteetarako aurreikuspenari dagokionez, erakundeen % 42,9k adierazi baitu aurreikusi duela jarduera hori handitzea. Bestalde, erakundeen % 38k **zerbitzu edo jarduera berriak sartu** ditu, eta % 41,3k, berriz, epe laburrean egitea aurreikusten du (urgentziazko egoerak hartzeko zerbitzuak zabaltzea, larrialdiaren ondoriozko behar berriei erantzuna, orain arte ezkutukoak ziren profilen arreta, ordutegiak zabaltzea eta abar).

Erakundeen % 38k adierazi du **informazio-falta duela konfinatutako hartzaileen egoerari buruz** (aurrez aurreko jarduerak bertan behera geratu direnez artatutako kolektiboen urruntzea, kalitateko arreta individualizaturik ez izatea, haurrak bizi diren familia gatazkatsuetan zer gertatzen ari den ez jakitea, egoera zaurgarrian dauden familia batzuekin harremana galtzea, etxera bisitak egin ezin izatea mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko eta abar). Datozen hilabeteetara begira, erakundeen % 12,5ek aurreikusi du ezin izango duela hartzaileen egoerari buruzko informaziorik izan.

Erakundeen % 51,6k adierazi du zerbitzuetan **osasun-materiala falta delako arazoak** dituztela, bereziki zuzeneko arretan (NBE urri, isolamendu-espaziorik ez, alarma-egoerari lotu gabeko jardueretarako testak eta abar), eta % 27,7k aurreikusi du epe laburrean osasun-materiala faltako duela.

Erakundeen % 37,5ek gaur egun **arazo logistikoak** ditu, eta % 18,5ek, datozen hilabeteetan arazo logistikoak izango dituela aurreikusi du. Erakundeen % 27,7k **arazo administratiboak eta/edo juridikoak** ditu, eta % 24,7k datozen hilabeteetan izango dituela aurreikusten du. Erakundeen % 19,6k gaur egun **segurtasun-arazoak** ditu, eta % 12,5ek arazo horiek epe laburrean izango dituela aurreikusten ditu.

Erakundeen % 19k adierazi du **giza baliabideak falta** dituela (ordutegi berrietara egokitzeko edo zerbitzu berriak eskaintzeko, kalitateko arreta emateko, bajak edo eszedentziak estaltzeko eta abar), eta % 16,3k, falta hori epe laburrean izango duela aurreikusten du.

Erakundeen % 14,7k, gainera, **beste arazo edo egoera batzuk** ditu: jarduerak eta zerbitzuak mantentzeko laguntzen kudeaketak, administrazio publikoekin koordinatzea (batzuetan asebetegarria eta beste batzuetan zaila), protokolo-aldaketa etengabeak, boluntariorik ez izateagatik jarduerak bertan behera uztea, instituzioaren arabera erantzun desberdinak eta zerbitzuak emateari lotuta ez dauden jarduerak murriztea dira horietako batzuk.

Etorkizunera begira, erakundeek zenbait egoera aurreikusi dituzte zerbitzuekin eta egiten duten jarduerarekin lotuta: jarduera berregituratzea, zerbitzuak eta zereginak berriz planifikatzea, zerbitzuak aurrekontuen arabera egokitzea, doakoak ziren zerbitzuak kobratzeko aukera, adostutako zerbitzu-orduak egiteko edo finantzatzaile diren erakunde publikoek ezarritako irizpideak betetzeko ezintasuna, zerbitzuetara berriz etortzeko hartzaile batzuek dituzten zailtasunak, etenda geratu diren eta jokabide-arazoak dituzten nerabeekin esku-hartzea mugatu duten programa psikoterapeutiko eta psikohezitzaileak indartzea, bazterkeria-egoerari arreta emateko plaza kopurua handitzea, jarduerak erantzun berrietara egokitzea, osasun eta gizarte arloaren artean koordinazio handiagoa, egungo etapa gainditutakoan segurtasun-protokoloen aurrean ziurgabetasuna, aisialdi soziohezitzaileko jarduerak aktibatzeke zailtasunak (kanpaldiak, udalekuak...).

4.2.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera

Zerbitzu eta jarduerari lotutako arazoak lantzean, alde adierazgarriena erakundeen **kontingentziak** eta **eremuak** eragiten dute. Analisi-aldagaien arabera informazio osoa eskaini arren (erakundeen lurraldea, kontingentzia, eremua eta neurria), gainerako aldagaietan baliteke ñabardurak eragitea, baina ezin esan dezakegu aldaketa mamitsurik eragiten dutenik.

Artatutako kontingentzia

Adierazi den moduan, **jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea** edo **zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea** izan dira erakundeen % 75ek aurre egin beharreko arazoak, edozein izanik ere kontingentzia. Baina aztertutako arazoetako batzuek presentzia handiagoa izan dute erakunde batzuetan beste batzuetan baino; horixe izan da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituztenen kasua.

Zerbitzuak ixtea ohikoa izan da erakundeen erdietan, eta eragin berezia izan du mendekotasunera bideratutakoetan. Koherentziaz, kontingentzia horretan hautematen da batez ere **hartaileekiko arreta-murrizketa**, baita **persona horien eskaeretako aldaketak** edo **konfinatutako hartaileen egoerari buruzko informazio falta** ere. Baina era berean, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeen erdiak baino gehiagok **zerbitzu edo jarduera berriak** gehitu dituzte, eta proportzio berean, **zuzeneko arretan gehiegizko karga** gertatu da.

Bestalde, **osasun arloko material-gabezia** bereziki nabarmena izan da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten edo desgaitasuna duten pertsonetara bideratuta dauden erakundeetan. **Arazo logistikoak** bereziki presente egon dira babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan, eta horietan dira nagusi **arazo administratiboak eta/edo arazo juridikoak** ere.

5. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK ZERBITZU ETA JARDUERETAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	GAUR EGUN				
	Mendeko-tasuna	Bazterkeria	Babesgabetasuna	Desgaitasuna	Beste batzuk
Zuzeneko arretan gehiegizko karga	% 57,1	% 31,7	% 43,8	% 33,3	% 29,0
Hartaileei arreta murriztea	% 85,7	% 46,0	% 43,8	% 52,8	% 46,8
Zerbitzu berriak edo jarduerak txertatzea	% 57,1	% 38,1	% 31,3	% 27,8	% 43,5
Zerbitzuak ixtea	% 71,4	% 49,2	% 50,0	% 52,8	% 35,5
Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea	% 100,0	% 81,0	% 93,8	% 80,6	% 75,8
Beste funtzio sozial batzuetako jarduerak ugaritzea	% 57,1	% 46,0	% 31,3	% 33,3	% 43,5
Zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea	% 100,0	% 81,0	% 87,5	% 80,6	% 83,9
Hartaileen (itxialdian daudenak) egoerari buruzko informazio-gabezia	% 57,1	% 38,1	% 31,3	% 25,0	% 45,2
Osasun arloko material-gabezia	% 71,4	% 57,1	% 37,5	% 66,7	% 38,7
Giza baliabideen gabezia	% 28,6	% 19,0	% 25,0	% 19,4	% 16,1
Arazo logistikoak	% 28,6	% 39,7	% 43,8	% 38,9	% 33,9
Segurtasun-arazoak		% 22,2	% 12,5	% 25,0	% 17,7
Arazo administratiboak eta/edo juridikoak	% 28,6	% 25,4	% 43,8	% 25,0	% 27,4
Hartaileek zerbitzuen eskaeretan izandako aldaketak	% 100,0	% 47,6	% 31,3	% 36,1	% 48,4

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin diharduten erakundeen proportzio zabal batek zuzeneko arretan gehiegizko karga aurreikusten duela. Horrez gain, desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dieten erakundeen ehuneko zabal batek jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzeari aurre egin beharko diola uste dute.

Jarduera-eremua

Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzeak erakundeen hiru laurdeni baino gehiagori eragin die (eremuaren arabera alde handirik gabe) eta **zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea**, erakunde gehienetan gertatzen den arren, badirudi Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen edo Soziala-Zeharkako arloan dabilzan erakundeetan izan dela bereziki nabarmena horren eragina. **Zerbitzuak ixteari** dagokionez, Enpleguaren eta Soziala-Zeharkako arloan dabilzan erakundeetan du presentzia nabarmenena.

Osasun arloko material-gabezia, berriz, Gizarte Zerbitzuetako erakundeetan ageri da gehien bat, eta horietan nabari da zuzeneko arretaren gehiegizko karga ere.

Soziala-Zeharkako arloan dabilzan erakundeek gainerakoek baino gehiagotan adierazten dute **hartzaileen (itxialdian daudenak) egoerari buruzko informazio-gabezia** Erakunde horietan dago hain zuzen ere arazo administratibo eta/edo juridiko gehien, Gizarte Zerbitzuekin batera, neurri handi batean hartzaileen esaretan aldaketak gehien jasaten dituztenak baitira.

Aipatzekoa da Garapenerako nazioarteko lankidetzaren eremuko erakundeak eta eremu Soziala-Zeharkakoa dutenek handitu dutela batez ere **zerbitzuak ematea ez den bestelako funtzio sozial batzuei lotutako jarduera** (sentsibilizazioa, salaketa eta abar).

6. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK ZERBITZU ETA JARDUERETAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, EREMUAREN ARABERA. (%)

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	GAUR EGUN						
	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapen. Naz.lanki.	Soziala-Zeharkakoa	Beste batzuk
Zuzeneko arretan gehiegizko karga	% 23,5	% 7,4	% 50,7	% 12,5	% 25,0	% 34,4	% 33,3
Hartzaileei arreta murriztea	% 64,7	% 51,9	% 47,9	% 62,5	% 31,3	% 43,8	% 33,3
Zerbitzu berriak edo jarduerak txertatzea	% 47,1	% 14,8	% 47,9	% 37,5	% 18,8	% 40,6	% 33,3
Zerbitzuak ixtea	% 52,9	% 66,7	% 38,4	% 43,8	% 31,3	% 50,0	% 66,7
Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea	% 82,4	% 81,5	% 82,2	% 81,3	% 87,5	% 75,0	% 66,7
Beste funtzio sozial batzuetako jarduerak ugaritzea	% 5,9	% 33,3	% 43,8	% 43,8	% 50,0	% 62,5	% 0
Zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea	% 82,4	% 63,0	% 90,4	% 68,8	% 87,5	% 90,6	% 66,7
Hartzaileen (itxialdian daudenak) egoerari buruzko informazio-gabezia	% 35,3	% 33,3	% 32,9	% 43,8	% 25,0	% 59,4	% 33,3
Osasun arloko material-gabezia	% 52,9	% 40,7	% 68,5	% 31,3	% 37,5	% 40,6	% 33,3
Giza baliabideen gabezia	% 11,8	% 22,2	% 16,4	% 31,3	% 12,5	% 25,0	% 0
Arazo logistikoak	% 35,3	% 44,4	% 38,4	% 31,3	% 43,8	% 34,4	% 0
Segurtasun-arazoak	% 11,8	% 11,1	% 24,7	% 25,0	% 12,5	% 21,9	% 0
Arazo administratiboak eta/edo juridikoak	% 11,8	% 29,6	% 27,4	% 25,0	% 25,0	% 40,6	% 0
Hartzaileek zerbitzuen eskaeretan izandako aldaketak	% 23,5	% 22,2	% 57,5	% 43,8	% 43,8	% 56,3	% 33,3

Datozen hilabeteetarako estimazioan, aipagarria da Gizarte Zerbitzuetako eta Garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeen ehuneko handiak aurreikusten duela zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea izango duela. Garapenerako nazioarteko lankidetzakoek, gainera, beste funtzio sozial batzuetako jarduera ugaritzea espero dute neurri handian.

Erakundearen neurria

Bai erakunde handiek, bai txikiak **jarduerak edo zerbitzuak aldatzea edo berriz orientatzea** eta **jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea** uste dute izango direla egoera edo arazo larrienak Covid-19aren krisiaren ondorioz. Lau erakundetik hirutan baino gehiagotan adierazi dute hori.

Erakunde handiek egin beharko diote aurre aldaketa horiei batez ere, baita zuzeneko arretan gehiegizko kargarekin lotutakoak, zerbitzu edo jarduera berriak sartzearekin, osasun arloko material-gabeziarekin, arazo logistikoekin, segurtasunekoekin eta administratibo eta/edo juridikoekin lotutakoak, baita pertsonen eskaerak aldatzearekin lotutakoak ere.

Bestalde, erakunde txiki eta ertainek gaur egun zerbitzuak ixteari, konfinatuta dauden hartzaileen egoerari buruzko informazio-gabeziari eta giza baliabideen gabeziari ari dira aurre egiten.

7. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK ZERBITZU ETA JARDUERETAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, NEURRIAREN ARABERA. (%)

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	GAUR EGUN	
	Txikiak eta ertainak	Handiak
Zuzeneko arretan gehiegizko karga	% 24,4	% 39,6
Hartzaileei arreta murriztea	% 48,7	% 49,1
Zerbitzu berriak edo jarduerak txertatzea	% 29,5	% 44,3
Zerbitzuak ixtea	% 47,4	% 45,3
Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea	% 79,5	% 82,1
Beste funtzio sozial batzuetako jarduerak ugaritzea	% 42,3	% 41,5
Zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea	% 75,6	% 88,7
Hartzaileen (itxialdian daudenak) egoerari buruzko informazio-gabezia	% 42,3	% 34,9
Osasun arloko material-gabezia	% 39,7	% 60,4
Giza baliabideen gabezia	% 21,8	% 17,0
Arazo logistikoak	% 33,3	% 40,6
Segurtasun-arazoak	% 14,1	% 23,6
Arazo administratiboak eta/edo juridikoak	% 23,1	% 31,1
Hartzaileek zerbitzuen eskaeretan izandako aldaketak	% 42,3	% 49,1

Datozen hilabeteetarako estimazioan, aipagarria da erakunde handien ehuneko handi batek aurreikusten duela zerbitzuak edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea eta zuzeneko arretan gehiegizko karga.

Lurralde historikoa

Datuak Lurralde historikoaren arabera aztertuta, argi eta garbi ikus daiteke lurralde guztiek jasan dutela **jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea** eta **zerbitzuak edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea**. Lurraldez lurraldeko analisi zehatza egitea alferrikakoa bada ere, nabarmentzekoa da Arabako erakundearen artean beste funtzio sozial batzuetako jarduerak ugaritzea antzematen dela (sentsibilizazioa eta abar), eta bai Bizkaikoetan, bai Gipuzkoakoetan, proportzio handiagoa dute zerbitzu edo jarduera berriak sartzeari, zerbitzuak ixteari edo hartzaileen eskaeren aldaketek.

8. TAULA: ERAKUNDEEK COVID-19AREN KRISIAK ZERBITZU ETA JARDUERETAN IZANDAKO ERAGINAREKIN LOTUTA GAUR EGUN AURRE EGITEN DIETEN ARAZO ETA EGOERAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	GAUR EGUN		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Zuzeneko arretan gehiegizko karga	% 31,6	% 32,4	% 36,6
Hartzaileei arreta murriztea	% 52,6	% 48,6	% 46,3
Zerbitzu berriak edo jarduerak txertatzea	% 26,3	% 40,0	% 43,9
Zerbitzuak ixtea	% 36,8	% 48,6	% 48,8
Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea	% 73,7	% 83,8	% 80,5
Beste funtzio sozial batzuetako jarduerak ugaritzea	% 47,4	% 39,0	% 43,9
Zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea	% 84,2	% 83,8	% 80,5
Hartzaileen (itxialdian daudenak) egoerari buruzko informazio-gabezia	% 39,5	% 38,1	% 36,6
Osasun arloko material-gabezia	% 50,0	% 47,6	% 63,4
Giza baliabideen gabezia	% 23,7	% 20,0	% 12,2
Arazo logistikoak	% 36,8	% 41,0	% 29,3
Segurtasun-arazoak	% 15,8	% 22,9	% 14,6
Arazo administratiboak eta/edo juridikoak	% 26,3	% 30,5	% 22,0
Hartzaileek zerbitzuen eskaeretan izandako aldaketak	% 39,5	% 46,7	% 51,2

Datozen hilabeteetarako estimazioan, aipagarria da Bizkaiko erakundeen ehuneko handiak aurreikusten duela zerbitzu edo jarduerak aldatzea edo berriz orientatzea edo zerbitzu edo jarduera berriak sartzea izango dutela.

4.2.3. Begirada espezifiko bat kolektibo jakin batzuei

Atal honetan, kolektiboei batzuk eta besteak artatzen diharduten erakundeen zerbitzu eta jardueren funtzionamendu-kasuistika jakinak bildu nahi dira.

Adinekoak

Erakundeek adierazten dutenaren arabera, **etenda geratu dira aurrez aurreko zerbitzu eta jarduera gehienak**. Geldirik daude babes-zerbitzuak, adinekoen batzarrak, bilera- eta aisia-guneak... Dinamizazio- eta prestakuntza-programak ere bertan behera geratu dira uda osterara arte.

Eguneko zentroak ixteak zera ekarri du, pertsona guztiak familiako kideen etxeetara bideratu dituztela. Familiek hartu dituzte beren gain adineko pertsonak, eta haien premiei erantzuna ematen saiatzen ari dira. Erakundeek susmatzen dute arazoak agertuko direla familiek lanera joaten hasi behar dutenean.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen kasu jakinari erreparatuz, bereziki larria da osasun-arriskuak direla-eta aurrez aurreko zerbitzuak eskaintzeko ezintasuna. Geldirik daude zaintzailetara bideratutako aisialdi- eta babes programak (arnasa hartzeko programak), baita zaintzaileen prestakuntza ere. Erakundeek zailtasun biziki larriak dituzte mendekotasun-egoerako adinekoak dauzkaten familiei erantzuna emateko.

Telefono bidez ari dira ematen egoera horretara egokitu ahal izan duten adinekoen edo **familien babes- eta laguntza-zerbitzua**, edo, bestela, komunikazio digitala ahalbidetzen duten erreminten bidez. Hori gertatzen da, konparazio batera, autonomia sustatzeko zentroyen kasuan: etxetik dihardute, onlineko gailuen bidez lanean. Posible denean eta premien arabera (elikadura, mendekotasuna...), telefonoz artatutako kasuak beste zerbitzu batzuetara bideratzen dira.

Aukera izan denetan, prestakuntza online eskaintzera igaro dira, eta, erakundeek adierazten dutenez, oso ondo ari da funtzionatzen.

Errehabilitazio anbulatorioko zentroek eta tankera horretako hainbat zerbitzuek **itxi egin behar izan dute**, baina profesionalen jarduera beste zerbitzu batzuetara bideratu dute: hain zuzen ere, gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdiak eraginda, langile-premia zuten zerbitzuetara. Hala eta guztiz ere, ezin izan dute zerbitzu askotako jarduera beste norabait bideratu edo berriro dimentsionatu, eta, kasu horietan, egoera horrek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak edo langabezia ekarri dizkie langileei. Hori gertatu da, adibidez, zahartze aktiboa sustatzeko programetan zentroak dinamizatzen jarduten duten taldeetan.

Telefono bidezko laguntza-dispositibo batzuek (adibidez, *Zilarrezko Haria*, adineko pertsonentzako doako laguntza-zerbitzua), **areagotu egin behar izan dute beren jarduna edo erabat birdimentsionatu behar izan dute erakundearen jarduera**, zerbitzu horri erantzun ahal izateko.

Egoitzei dagokienez, eten egin dira adineko pertsonekin antolaturiko **jarduera** guztiak, eta taldekoak, berriz, talde txikietan ari dira gauzatzen. Horretarako, hezitzaileak kontratatu behar izan dira. Ahal den neurrian, indartu egin da familiako kideei eta erakundeei deitzeko zerbitzua, egoerari buruz informaturik edukitzeko.

Adineko pertsonen egoitzetan izandako krisiaren kudeaketak konplikazioak ekarri ditu hainbat auzi direla eta, hala nola **berrantolaketa** egin beharra osasun-larrialdiari erantzun ahal izateko (COVID-19ak jotako gaixoentzako solairuak edo eremuak sortuz), etengabeko protokolo-aldaketak edo komunikabideek sorturiko alarma soziala. Horrez gain, erakundeek adierazten dute dilemak sortzen ari direla adineko pertsonen arreta eskaintzeko ereduaren artean: autonomia vs segurtasuna edo direktibitatea, etxean bezala egotea vs arreta bideratuagoa, hautaketa edo pertsonalizazioa vs uniformetasuna.

Haurrak, nerabeak eta haien familiak

Haurrei, nerabeei eta haien familiei arreta eskaintzen dieten erakundeek kasuan, bertan behera utzi zituzten **ikastetxeekin loturiko zerbitzu asko eta asko** (eskolaz kanpokoak, hezkuntza-sendogarrak...), ikastetxeak itxi zituztenetik aurrera. Ikastetxeekin eta familiekin aurrez aurrekoak ez diren formatuetan harremana eduki duten erakundeek identifikatu dutenez, ikastetxe bakoitzak erabaki desberdina hartu du eta familiak egokituz joan dira, baita erakundeak ere. Funtsezkoa iruditzen zaie haurren egoerari buruzko informazio eguneratua edukitzea, eman beharreko erantzunak egokitze aldera.

Hainbat ikastetxek bideokonferentzia bidez ematen dituzte eskolak, baina familia batzuek ez dute jarraitzeko baliabiderik. Alde horretatik, erakundeak eskola-babeseko programekin eta ikastetxeekin koordinatu dira, ahal den neurrian **laguntza edo gailu informatikoak eskaintzeko**. Interneteko konexiorik ez duten familien kasuan, erakundeek bitartekaritza-lana egin dute familien eta ikastetxeen artean, ariketak inprimatuz eta familien artean banatuz. Horrez gain, auzoko edo hurbileko bitartekoak sortzen ari dira, ordenagailu eramangarri bat baino gehiago dituzten familiek bat ere ez dutenen eskura ipin ditzaten. Era berean, konektagarritasun-arazoak ere hauteman dituzte; izan ere, hainbat familiak ez dute banda zabaleko konexioa eskolak online jarraitzeko.

Familia-eskolen programak berregokitzea eta online egitea lortu den kasuetan ere, nabarmen geratu dira bai eten digitala, bai hizkuntza-etena.

Hezkuntzarako aisialdi-zerbitzuei dagokienez, udalik gehienek kontratuei eutsi diete, zerbitzuak itxita eduki arren. Onlineko zerbitzuak eskaintzeko ahalegina egiten ari dira, nahiz eta familiek proposamenen saturazioa duten. Horrek ekarri du eskaintza egokitzea.

Erakundeek ziurgabetasuna ageri dute, ea nola geratuko ote diren zerbitzu eta kontratu horiek hemendik urte amaierara arte; izan ere, kontratuak eteten badituzte, udalek gastuak konpentsatuko behar dituzte. Beraz, nahiago dute aktibo edukitzen jarraitu. Egoera horren ondorioz, ordu-poltsak sortzen ari dira, ahal den garaian konpentsatzeko. Egoera konplexua da hori erakundeek kudeatzeko: ordeztzeko langileak topatu beharko dituzte, aurreikusitakoa baino gastu handiagoa eta abar.

Aisialdiko taldeei laguntzeko zerbitzuak geldirik daude. Handia da talde horien gaineko kezka; izan ere, beren jarduna berriro asmatzen saiatzen ari badira ere, boluntarioz osaturik daude, eta beraien bitartekoak baino ez dituzte. Nolanahi ere den, begiraleak estrategia berriak garatzen ari dira, batez ere sare sozialetan, neska-mutilekin harremanetan jarraitzeko.

Familiantzako lehen mailako arreta-zerbitzuek (esku-hartze soziohezitzailea eta psikosoziala) aurrez aurreko jarduera eskasa dute, baina batez ere telelanean dihardute, horretarako hainbat erreminta baliatuz (deiak, WhatsApp, bideokonferentziak...), familia bakoitzaren arabera.

Babes psikosozialeko zerbitzuak lehenetsuneko jarduera dira, eta oso handia da arazo psikologikoak edo konfinamenduaren osteko arazoak dituzten pertsonen erantzuteko deikopurua. Birtualki mantendu dira, intentsitate gutxi-askorekin, amen taldeak edo eskolak, nerabe-taldeak... Aurrez aurre eskaintzen ziren zerbitzuak egokitu egin dira bitarteko telematikotara, batez ere telefono bidez, hori baita bitartekorik zabalduena.

Lehen mailako prebentzio-zerbitzuak mantentzen ari dira. Haietan, hainbat egoerarekin lotutako zerbitzuak ematen dira: eskola-babeseko bitartekoak, baliabide teknologikoekin zailtasunak, ezegonkortasun psikologikoak (lehen normalizatu samar zeuden familietan aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako antsietatea, egoera ekonomiko konplexuak dituzten autonomoak, konfinamendu-garaian gertaturiko familia-banantzeak...).

Familia gordetzeko zerbitzuek aktibo jarraitzen dute, eta lan handia ari da egiten familiekin (bisitak, otorduak banatzea...), bereziki babes-sare apala duten amei eta nerabeei babes emozionala eskainiz edo familia barruko indarkeria-kasu posibleak hautemanaz.

Adopzioek, harrerek, haurren sexu-abusuen salaketek eta halako foru-zerbitzuek ere martxan jarraitzen dute. Mantentzen diren familia-harrerako zerbitzuei dagokienez, hainbat erakundek ohartarazten dute erakunde publikoak txostenak helarazten ari direla, jardueraren segimendu oso xehatua egin ahal izateko.

Adingabeentzako egoitzetan, ostera, ohiko jarduerarekin jarraitzen dute baina indarturik; horrek zailtasunak sortzen ditu txandak egokitzeko (txanda luzeagoak), bai eta infekzio-kasuetarako protokoloak eta kontingentzia-planak zehazteko ere, eta abar.

Desgaitasun fisikoa eta psikikoa duten pertsonak

Beste kolektibo batzuetan bezala, desgaitasuna duten pertsonen kasuan, bertan behera geratu dira **eguneko zentroak** eta halako aurrez aurreko zerbitzuak. Kasu horietan, familiek edo babes-sare naturalek hartu dute beren gain pertsona horien ardurak; izan ere, pertsona horiengana bitarteko telematikoein gerturatu nahi izateak eta zerbitzuak bide telematikoz ematea erabakitzeak oso inpaktu txikia luke haien bizitzan. Pertsona batzuk egoitzetara igaro dira, eta horrekin areagotu egin da bitarteko horien jardura.

Era berean, itxi egin dira **diagnostiko klinikoko zerbitzuak**, bide telematikoetara egokitu ezin izan direnak; izan ere, proba eta saio batzuek nahitaez eskatzen dute aurrez aurreko presentzia.

Prestakuntza-zerbitzuak etenda daude, eta zailtasun bat gehiago dakar horrek hartzaileentzat: ez dute jasotzen bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako kideen euskarri bera –azken horien kasuan egokitu baitute prestakuntza onlineko formatuetara–.

Etenda daude **zerbitzu okupazionalak** ere, eta hartzaileak etxean daude. Babesa emateko ahalegina egiten da, nahiz eta nagusiki larrialdi sozial eta familiarretan eduki ardatza, eta nahiz eta telefono bidezko laguntza emateko zerbitzuak martxan jarri.

Aisialdiko eta denbora libreko programak, laguntza indibidualekoak edo bizitza independentea babesteko programak ere bertan behera geratu dira kasu batzuetan, ez zelako aukerarik aurrez aurre emateko edo formatu telematikora berregokitzeko.

Hiruhileko honetarako aurreikusita zeuden **intzidentzia- eta sentsibilizazio-jarduerak**, desgaitasun fisikoak edo sentsorialak dituzten pertsonen erakunde batzuek antolatutakoak, berriro ari dira programatzen, irailtik aurrera egiteko.

Erakundeak bereziki kezkatutakoak daude datozen hilabeteetan eskain daitezkeen **arnasa hartzeko zerbitzuei** dagokienez. Gaur egungo testuinguruan, familiako arnasa-kontzeptuak indar handiagoa hartzen du aurreko urteetan baino. Nahiz eta forma alda daitezkeen, erakundeek ezinbestekotzat ikusten dute tankera horretako zerbitzuak eskaintzea udan, hainbeste murrizketa izan diren bizikidetzak-aldi bat igaro ondoren.

Desgaitasunak dituzten pertsonen kolektiboa babesten duten erakundeek aurreikusten dutenez, deseskalatze-aldiak zera ekarriko du denbora gutxian, **zerbitzuak berriro konfiguratu eta asmatu beharra**. Praktika hori egin izan da orain arte. Esate baterako, familiei babesa emateko zerbitzuak telefono bidezkoak izatera igaro dira, eta familiekin harreman estua izatea lortu dute.

Erakundeek, era berean, **aurrez aurreko babesa ere eskaini dute kasu jakin batzuetan**. Hori gertatu da, konparazio batera, espektro autistaren nahasmendua duten pertsonak artatzen dituzten erakundeen kasuan, aldian-aldian eskaera jakinak izan baitituzte babes jakinen baterako.

Kasu batzuetan, lortu da operatibo eustea **lanbide-orientazioko zerbitzuei**; esaterako, desgaitasun fisikoa eta sentsoriala daukaten pertsonen kasuan, mugapen telematiko gutxiagorekin (ezin dute eskaini halakorik desgaitasun intelektualak daukaten pertsonentzat eta trebetasun telematikorik ez dutenentzat).

Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duten pertsonentzako **jarduera asoziatiboa babesteko programetan** edo babes psikologikoko zerbitzuetan –informazioa, orientazioa edo babes psikologia ematen dutenetan–, jarduera berrorientatzen ari dira, eta formatu telematikoak baliatzen dituzte, Skype, Hangouts eta halako erreminten bidez.

Egoitza-zerbitzuak irekita eduki dira, eta jarduera handiarekin. Zerbitzu horietan, areagotu egin behar izan dute desgaitasun intelektuala duten pertsonekin egindako lana, jakinik ez dutela argi ulertzen zertan dautzan konfinamenduko murrizketek eta, ondorioz, babes handiagoa eskatu dute, familietatik harago.

Hainbat erakundek **etxebizitza-zerbitzuei** eutsi diete, zailtasun erantsi batekin, eguneko zentroak edo tailerrak itxi izanagatik. Hainbat hartzaile familiaren etxera bueltatu dira. Pisuetan jarraitzen duten hartzaileen kasuan, arreta eguneko 24 orduetan eman da, eta horrek inpaktu handia eragin du, bai kudeaketan, bai ordaindutako pertsoneri dagokienez.

Horrez gain, erakundeak saiatu dira **arreta psikologikoko zerbitzuak** martxan ipintzen, batez ere premia-egoerak detektatzeko eta, hala, hartzaileak eta haien familiak artatu ahal izateko.

Buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak

Erakundeak saiatu dira **jarraipena** egiten erabiltzaileei, ikusteko zer-nolako inpaktua ote duen konfinamenduak beren egoera psikopatologikoan, bizikidetzaren antolamenduan, elikadura-ohituretan eta abarretan, erantzun eta babes egokiak eskaini ahal izateko.

Eguneko zentroak fisikoki itxita egon arren, **areagotu egin dute esku-hartzearen intentsitatea**. Hori da, esaterako, pisu tutelatuen kasua; horietan, eguneko arreta indartu da, pisu horietako erabiltzaileak eguneko zentroetara joaten baitziren. Halaber, aurrez aurreko segimendu handiagoa egin zaie bizitza independentea babesteko.

Prestakuntza- eta partaidetza-jardueretan, material guztiak aldatu dira eta malgutasun handiagoz lan egin behar izan da; era berean, elkarren arteko babesa eta hartzaileen arteko konexioa ere sustatu dira. Oro har, pertsonalizaziotik abiatuta ari da egoera jorratzen, aurreko talde-jardueren aurrean; horren ondorioz, oso garaiz hautematen dira deskonpentsazio-egoerak. Hala, lan handia ari da egiten alde zurretik beren buruaz beste egiten ahalegindu diren pertsonekin, arreta psikologiko handiagoa eskainiz.

Familia-eskolak dituzten erakundeetan, beste formatu batzuetara eraldatzen ari dira. Hartzaileek zein haien familiek egundoko eten digitala dute; hori dela eta, posta-zerbitzua erabiltzen jarraitzen da.

Indarkeria bizi duten emakumeak

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik indarkeria jaso duten emakumeak artatzen dituzten erakundeek **aktibo eusten diete premiazko eta egoitzetako bitartekoei**, eta bitarteko gehiago ere gaitu dituzte, COVID-19aren egoeraren aurrean babesik gabe dauden eta tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzat. Bitarteko horietan, hasierako ziurgabetasuna eustez eta kudeatzeaz gainera, esku-hartze sozioheztailerako prozesuak gaitu dira.

Egoitzen babesa eskatzen ez duten gainerako emakumeentzat, berriz, esku-hartzea eskaintzen da, baina **eten egin dira aurrez aurreko jarduera eta laguntza**. Arreta eta kontaktu

ohikoagoarekin saiatu dira zuzeneko harremanik eza arintzen (batzuetan, astean behin ematek egunero ematera).

Zerbitzuetan izandako aldaketek eragindako ondorio nagusietako bat izan da **desagertu egin dela aurrez aurreko jarduera hori eta presentzia fisikoa laguntza-zerbitzuan**, eta, orain, online, telefono bidez edo bitarteko telematikoen bidez ematen da. Batzuetan, emakumeek ez dute teknologiarik edo ezagutzarik harreman-mota horietarako. Era berean, oraindik ere erasotzailearekin batera bizi diren emakumeen kasuan baina tankera horretako bitartekoak baliatzen dituzten artean, murriztu egiten direla harremanetan ipintzeko intimitate-uneak eta laguntza eskaintzeko aukerak, etengabe baitaude erasotzailearekin. WhatsApp aplikazioa edo erosketa-uneak aprobetxatzea izaten dira ordeko aukerak. Hala eta guztiz ere, harreman telematikoa biziki konplexua da kasurik muturrenekoetan, zaildu egiten baita bide horien bidez egoerari eustea. Izugarri zaila da, era berean, arreta psikologikoan, oro har testuinguru bereziki zaindua eskatzen baitu.

Badirudi batzuetan arazoak direla inplikaturiko eragileen artean **kasuak egokiro koordinatzeko** (gizarte-zerbitzuak, justizia, osasun mentala...), eta zailtasunak ageri dira **espedienteak izapidetzeko, prozesu judizialean parte hartzeko** eta halako eginbeharrak dituzten emakumeei laguntza eskaintzeko, itxita baitaude laguntza hori eskaintzeko zerbitzuak (edo nekez eskuratzeko moduan, bestela).

Beharrezkoa ematen du **jakinarazten jarraitzea aktibo segitzen duela indarkeria bizi duten emakumeei eskaintzeko arretak**, badirela erantzuna emateko neurriak eta dispositiboak emakumeen zein haien seme-alaben segurtasuna bermatzen dutela.

Etorkinak

Etorkinekin lan egiten duten erakundeek mugaturik izan dute aurrez aurreko arreta, eta, batez ere, **telefono bidezko arretaren** aldeko hautua egin dute. Aurrez aurreko arreta murriztearekin batera, **beharrizan eta eskari berriak agertu dira**, eta horiei erantzuna ematen dihardute: arreta-profil berriak, itzulpen-zerbitzuak COVID-19arekin loturiko informazioaren inguruan, aholkularitza-lana babes-neurrien inguruan eta atzerritarren legeriarekin loturiko alderdien gainean, eta abar.

Bitarteko eta dispositibo berriak sortzearen ondorioz, **zerbitzu berrien ardura hartu dute**, horrek ekartzen dituen zailtasunekin: alde zuzeneko laguntzarik gabe lan egiten duten pertsonak premia dela eta, kontratazio berriak eta abar.

Epe ertainean, gerta liteke atzerritarrei babesa eskaintzen dieten erakundeak egoerara moldatzea, sortzen diren premiei erantzunez, baina, itxura guztien arabera, oso ahuldurik geratuko dira etorkinen erakundeak.

Txirotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak

Aurrez aurreko zerbitzuak eta bitartekoak ixteak haietako batzuk birmoldatzea ekarri du, posible izan denetan, behintzat. Esate baterako, arrisku-egoeran dauden etorkin-familiei arreta eskaintzeko zerbitzuek martxan jarraitzen dute, aurrez aurrekoak ez diren esku-hartzeekin, gertatzen ari diren gorabeheriei erantzun ahal izateko (familia barruko gatazka-egoerak, indarkeria eta abar).

Prestakuntzako eta lan-bitartekaritzako zerbitzuetan edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonekin egiten diren tailer okupazionalak, saiatu dira zerbitzua bide telematikoz ematen, baina hartzaileen eten digitala handia da eta ezin da guztietara iritsi.

Nabarmentzekoak dira, halaber, bitarteko ekonomikoek eragindako **arraila digitalaren** ondorioak. Hainbat pertsonak ez daukate bitartekorik telefono mugikorreko linea bat edo Interneteko konexioa edukitzeko; hori dela eta, ezin dute deitu gizarte- edo osasun-zerbitzuetara, nahiz eta eskatu beharrez izan. Kasu horietan, erakundeak bitartekaritza eskaintzen saiatzen ari dira, osasun- edo gizarte-sistemak berak hartzaileengana gerturatu daitezten eta haiekin harremanetan ipin daitezten.

Gizarteratzeko zerbitzuetan, ostatu-zerbitzuekin, pisuetara bisitak egiten ari dira, eta saiatzen dira egoitza-zerbitzuetan bizi diren pertsonen konfinamendua errespetatu dezaten.

Laguntza ekonomikoko hainbat programa indartu egin dituzte, bazterkeria-egoeran dauden familietarako.

Eguneko eta gaueko arreta-zerbitzuetan, COVID-19aren krisiaren aurreko arreta indartu egin behar izan dute langile berberekin. Horren ondorioz, langileok orduak metatu dituzte, eta gerora opor modura gozatu beharko dituzte. Ondorioz, langileak kontratatu beharko dira ordezkapenak egiteko, eta, hortaz, aurreikusitakoa baino gehiago gastatu beharko da. Bestalde, hitzarmenak ez du ahalbidetzen aparteko ordurik, eta baliteke arazo bat egotea ordezkapenak egiteko langile egokiak topatzerakoan.

Erakundeek eragin desberdinak izan dituzte **hirietan eta landa-inguruetan edo herritar gutxiago bizi diren tokietan** COVID-19aren krisia dela eta, bereziki bazterkeria-egoeran dauden pertsonen dagokienez. Hiriguneetan kontzentratzen dira bazterkeria-arrisku handiagoan dauden kolektiboak, egoera larriagoak. Gipuzkoan hainbat dispositibo antolatu dituzte lurraldean zehar; Bizkaian, berriz, Bilbo Handian kontzentratu dira pertsonak eta baliabideak. Bilbon martxan ipinitako dispositiboak handiagoak dira, eta horrek esan nahi du gatazkak izateko arrisku handiagoa eta bestelako arazoak direla. Beste hiriburuetan muntatu dituzten dispositiboak txikiagoak dira, pertsona gutxiago bizi baita bazterkeria-egoeran, eta badirudi gatazka-arriskua txikiagoa dela. Landa-inguruetan eta biztanlegune txikiagoetan ere pertsona gutxiago dago bazterkeria-egoeran, eta, horrenbestez, arreta pertsonalizatuagoa eta efektiboagoa da.

Bazterkeria-egoeran dagoen kolektiboarekin loturiko larrialdi-egoerak –hala nola bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako ostatuak egokitzea eta sortzea– esku-hartze konplexua eskatu du, baita lankidetzak eta koordinazioa ere erakunde publikoen eta hirugarren sektore sozialaren artean. Nahiz eta, oro har, balioespen ona egiten den, hainbat erakundek ñabardurak egiten dituzte egoera zail honen aurrean emandako baterako erantzunari buruz.

Alde horretatik, erakundeek ez dute ahazten Bilbo Handiko arazo konplexuei aurre egitea zailagoa izan litekeela, eta erakunde eta udalerrien lankidetzak eskatu dute.


Oro har, esku-hartze sakona bilatu da premiazko harrera-egoerei erantzun ahal izateko. Orain beste bitarteko batzuetarantz bideraturiko trantsizioan lan egin behar da, premiazko harrera jasotzen duten pertsonen beharrezko espezifikoei ohitu daitezten. Ibilbide berriak sortu beharko dira, zeinetan inplikaturiko erakundeek pertsona horien arreta-erantzukizuna hartu beharko baitute, beren eskumenen eta eragileen arteko elkarrizketaren arabera.

4.3. Boluntarioen eta ordainpekoen artean izan duen eragina

4.3.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena

Boluntarioek eta ordainpekoek osatzen dituzte Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako lantaldeak. COVID-19aren krisialdia hasi zenetik, haien egoerak hainbat eratako kalteak izan ditu, eta erakundeek hainbat arazori egin behar izan diete aurre, lantaldeak kudeatzeari dagokionez. Horietan gehien zabaldutakoak dira, bereziki, **lan-baldintzek izandako aldaketa nabarmenek eraginez jarduerak kudeatzeko izandako zailtasunak** (telelana, kontziliazioa eta abar), **arriku psikosozialak** (estres-egoerak, higadura emozionala...) eta **kontratazio-baldintzetan izandako aldaketak**. Epe laburrerako egindako zenbatespenean, erakundeen ehuneko handienek **arriku psikosozialak** ikusten dituzte, beren boluntario eta ordainpekoek aurre egin beharrekotzat.

4. GRAFIKOA: ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIO ETA ORDAINPEKO PERTSONEK GAUR EGUN AURREZ AURRE DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK ETA EPE LABURRERAKO ESPEROTAKOAK (2020), COVID-19AREN KRISIAREN INPAKTUAREKIN LOTURIK. (%)



Zehazki, erakundeen % 69k adierazten du gaur egun **zailtasunak dituela jarduera kudeatzeko, lan-baldintzetan izan dituzten aldaketa mamitsuak direla eta**. Egoera horiek hainbat auzirekin daude loturik, hala nola kontziliazioa, langile-taldearen ordutegiak aldatu izana, telelanera igaro izana, gaitasun digital eskasak izatea edo ez egotea ohituta telelanarekin –eta, horren ondorioz, komunikazioa zailtzea–, ekipamenduak eta bestelako erreminta telematikokoak falta izatea, eta abar.

Hurrengo hilabeteetara begira, nabarmen murrizten da arazo hori identifikatzen duten erakundeen ehunekoa, nahiz eta oraindik ere % 27,7k zailtasunak aurreikusten dituen jarduera kudeatzeko, lan-baldintzetan izandako aldaketak direla eta.

Erakundeen % 63,6k adierazten duenez, boluntarioek eta ordainpeko pertsonak **arriku psikosozialak** bizi dituzte (estresa, higadura emozionala, antsietatea, dedikazio handia eta abar). Batez ere, nabarmentzekoa da egoera horrek zuzeneko arretako taldeetan eragiten duen gainkarga; horri gaineratu behar zaio konfinamenduak eragindako tentsioa edo behar adina erreminta ez izatea neurri horretako egoera bat kudeatzeko.


Sektore heterogeneo bateko hainbat kasuistika: COVID-19ak jotako pertsonen arreta eskaini behar izan dieten langileak, erabiltzaileek barrena husteko egindako telefono-deiak erantzutea, konfinamenduan dauden familia desegituratuak adingabeei jarraipena egitea, egoitzetako taldeen estresa eta abar. Epe laburreko aurreikuspenen arabera, erakundeen % 48,4k adierazten duenez, boluntarioek eta ordainpekoek arriku psikosozialak izango dituzte.

Erakundeen % 60,9k **aldaketak ditu aurrez aurre kontratazio-baldintzetan** (kontratu batzuen jarraitutasuna bermatzeko ezintasuna, egitekoak aldatzea, hainbat kontratu ez berritzea, kontratuan jasotako orduak murriztea, erakundeetan lan egiten duten autonomoak eta fakturatu edo laguntzak eskuratu ezin dituztenak, praktiketan dauden pertsonak bertan behera gelditzea eta abar). Hain justu, % 19,6k aurreikusten du halako aldaketak izatea.

Kontratazio-baldintzetan aurreikusitako aldaketekin loturik, erakundeen % 47,8k egin behar izan ditu egokitzapenak edo aldaketak egitekoetan, eta % 41,8k lan-jardunaldia aldatu behar izan du, jardueran egokitzapenak egin behar izatearen ondorioz.

Halaber, erakundeen % 26,1ek adierazi du aldaketak izan dituela ordainpeko pertsonen lan-jardunaldian familiei erantzuteko, eta % 7,6k adierazten du eszedentziak dituela familiartekoei arreta eskaintzeko. Erakundeen % 8,1ek adierazten du aparteko orduak egiten ari dela, eta % 6k soldata-murrizketa izan du.

5. GRAFIKOA: ERAKUNDEEN BANAKETA, KONTRATAZIO-BALDINTZETAN ALDAKETAK IZAN DITUZTEN ALA EZ KONTUAN HARTURIK. (%)



Tentu handiz bada ere, esan daiteke mendekotasun-egoeran edo -arrikuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeek neurri handiagoan dituztela aparteko orduak eta aldaketa edo egokitzapenak egitekoetan; aldiz, desgaitasuna duten pertsonak artatzen dihardutenek lanaldian izan dituzte aldaketak, familiartekoei arreta eskaintzeko. Soldata-murrizketek ohikoagoak dirudite erakunde txikietan; handietan, berriz, neurri handiagoan dituzte aldaketak jarduerak egokitzeko, senitartekoei arreta eskaintzeko edo egitekoetan aldaketak edo egokitzapenak gauzatzeko.

Erakundeen erdiek, gutxi gorabehera, adierazten dute beren langileek **osasan-arriskuak** dituztela (babes-materialik eza, testak faltan eta abar). Hurrengo hilabeteetara begira, % 26,1ek aurreikusten du osasan-arriskuei aurre egin beharra.

Erakundeen % 45,1ek adierazi du **gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdiak** izan dituela ordainpeko langileen artean. Epe laburrerako aurreikuspenek adierazten dutenez, erakundeen % 27,2k pentsatzen du gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdiak izango dituztela.

Gaur egun, erakundeen % 40,8k dio **zailtasunak dituela boluntarioak kudeatzeko**, hala nola komunikazio-zailtasunak, mobilizazioa, esku hartzeko irizpide garbien falta, eremu berrira egokituriko prestakuntza eskaintzeko beharra, onlineko boluntarioak ugaritu izana, ordutegiak eta atazak egokitzea, boluntario-lana ezeztatzea, adinean aurrerago egindako boluntarioak lanari utzi izana kutsatzeko beldurrak eraginda, eta abar. Datozen hilabeteetara begira, erakundeen % 17,9k zenbatesten du zailtasunak izango dituela boluntarioak kudeatzeko. Nolanahi ere den, erakundeek zailtasunak izanik ere, boluntarioek konpromiso handiagoa agertu dute, are inplikazio handiagoa eskatzen duten lanak egiteko.

Lau erakundetatik ia batek adierazten du **enplegu-erregulazioko espedienteak edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak** dituela. Nahiz eta hurrengo hilabeteetarako ehuneko hori apur bat jaisten den, nabarmentzekoa da erakundeen % 20,7k aurreikusten dituela halakoak erakundeetan, jarduerari uzteagatik.

Alde horretatik, % 15,2 **ez dira ari kontratuak berritzen** alarma-egoeran zehar, eta % 13k adierazten du arazo hori bera izango duela datozen hilabeteetan.

Horretaz gainera, erakundeen % 15,2k dio **bestelako egoerak** dituela boluntarioen eta ordainpeko pertsonekin loturik: kontratazio berriak bajak ordeztzeko edo larrialdi-egoerari erantzuteko sorturiko bitartekoetan profesionalak kontratatuzeko, lanpostuak profesionalki estaltzeko zailtasunak, produktibitate-galera, profesionalak birkokatzea aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak saihesteko, zailtasunak enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen nominak ordaintzeko, behar adina lan-bolumen ez izatea lan-jardunaldi batzuk epe luzean gordetzeko, aldaketak ohiko lanpostuan premia handiagoa duten egoerak estaltzeko eta abar.

4.3.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera

Boluntarioekin eta ordainpekoekin loturiko arazoak jorratzeko garaian, **erakundeen neurria** da, ziurrenik, aldaketarik garrantzitsuenak eragiten ari den aldea. Analisiaren aldagaien arabera informazio osoa eskaini arren (erakundeen lurraldea, kontingentzia, eremua eta neurria), aldagai horrexek eragiten ditu alderik nabarmenenak boluntarioei eta ordainpekoiei dagokienez. Gainerako aldagaietan, eskainitako informazioak baliteke ñabardurak eragitea, baina ezin esan dezakegu aldaketa mamitsurik eragiten dutenik.

Artatutako kontingentzia

Artatutako kontingentziaren araberako datuak aztertuz, ikusiko dugu **osasan-arriskuak (babes-materiala faltan...)** eta **arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)** artatzen dituztela neurri handiagoan mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin jarduten duten erakundeek.

Halaber, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin jarduten duten erakundeek identifikatzen dituzte proportzio handiagoan **aldaketak kontratazio-baldintzetan**.

Desgaitasuna duten pertsonekin jarduten duten erakundeek, berriz, **gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdiak** eta **alarma-egoerak irauten duen bitartean kontratuak ez berritzea** identifikatzen dituzte gehiagotan; aldiz, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin jarduten duten erakundeek **enplegu-erregulazioko espedienteak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak** dituzte.

Jardueraren kudeaketako arazoak lan-baldintzetan oinarrizko aldaketak daudelako (teelana, kontziliazioa...) eta boluntarioak kudeatzeko zailtasunak, berriz, babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin diharduten erakundeek gehien adierazitako arazoak dira.

9. TAULA: COVID-19AK ERAGINDAKO KRISIAREN ONDORIOZ ERAKUNDEEK EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK BOLUNTARIOEI ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEI DAGOKIENEZ, KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK	GAUR EGUN				
	Mendeko-tasuna	Bazterkeria	Babesgabetasuna	Desgaitasuna	Beste batzuk
Osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...)	% 71,4	% 54,0	% 37,5	% 63,9	% 40,3
Arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)	% 100,0	% 60,3	% 68,8	% 69,4	% 58,1
Jarduera eteteagatik izandako EEEak edo ABEEEak	% 0	% 42,9	% 25,0	% 19,4	% 11,3
Gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdia	% 42,9	% 47,6	% 62,5	% 69,4	% 24,2
Alarma-egoerak irauten duen bitartean kontratuak ez berritzea	% 14,3	% 20,6	% 12,5	% 27,8	% 3,2
Jardueraren kudeaketan arazoak lan-baldintzetan oinarrizko aldaketak daudelako (teelana, kontziliazioa...)	% 42,9	% 76,2	% 81,3	% 75,0	% 58,1
Boluntarioak kudeatzearekin lotutako zailtasunak	% 42,9	% 36,5	% 50,0	% 38,9	% 43,5
Aldaketak kontratazio-baldintzetan	% 71,4	% 57,1	% 62,5	% 75,0	% 54,8

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, bazterkeria- edo babesgabetasun-egoeran daudenak eta desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzten erakundeen proportzio zabal batek arrisku psikosozialak aurreikusten dituela (estres egoerak, higadura emozionala...) boluntarioen eta ordainpekoen artean.

Jarduera-eremua

Datuak jarduketa-eremuaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu gizarte-zerbitzuetako erakundeek neurri handiagoan dituztela **osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...), arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...) eta gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdia**. Aldiz, enplegu-erakundeek dituzte neurri handiagoan **enplegu-erregulazioko espedienteak eta aldi baterako erregulazio-espedienteak, jarduera utzi izanaren ondorioz**.

Hezkuntzako eta aisialdiko erakundeek gehienbat adierazten dute **boluntarioak kudeatzearekin lotutako zailtasunak dituztela**. Halaber, hezkuntzako eta aisialdiko erakundeek eta gizarte-zerbitzuen alorrekoek jakinarazten dute neurri handiagoan **zailtasunak dituztela jarduera kudeatzeko** eta, halaber, **aldaketak kontratazio-baldintzetan**.

10. TAULA: COVID-19AK ERAGINDAKO KRISIAREN ONDORIOZ ERAKUNDEEK EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK BOLUNTARIOEI ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEI DAGOKIENEZ, JARDUKETA EREMUAREN ARABERA. (%)

BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK	GAUR EGUN						
	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapen. Naz. lan.	Soziala-Zeharkakoa	Beste batzuk
Osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...)	% 41,2	% 40,7	% 65,8	% 37,5	% 37,5	% 43,8	% 33,3
Arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)	% 47,1	% 55,6	% 80,8	% 50,0	% 43,8	% 56,3	% 66,7
Jarduera eteteagatik izandako EEEak edo ABEEEak	% 17,6	% 66,7	% 17,8	% 31,3	% 0	% 12,5	% 66,7
Gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdia	% 23,5	% 51,9	% 68,5	% 31,3	% 12,5	% 21,9	% 33,3
Alarma-egoerak irauten duen bitartean kontratuak ez berritzea	% 5,9	% 51,9	% 15,1	% 12,5	% 0	% 0	% 0
Jardueraren kudeaketan arazoak lan-baldintzetan oinarrizko aldaketak daudelako (teelana, kontziliazioa...)	% 58,8	% 66,7	% 72,6	% 87,5	% 68,8	% 59,4	% 66,7
Boluntarioak kudeatzearekin lotutako zailtasunak	% 41,2	% 11,1	% 43,8	% 75,0	% 50,0	% 40,6	% 0
Aldaketak kontratazio-baldintzetan	% 41,2	% 59,3	% 72,6	% 81,3	% 37,5	% 46,9	% 66,7

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da enplegu eta gizarte-zerbitzuen alorreko erakundeen proportzio zabal batek arrisku psikosozialak aurreikusten dituela (estres egoerak, higadura emozionala...) boluntarioen eta ordainpekoen artean. Halaber, enplegu-erakundeen ehuneko handi batek adierazten du enplegu-erregulazioko espedienteak edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak izango dituela jarduera eteteagatik.

Erakundearen neurria

Datu guztiak erakundearen neurria kontuan harturik aztertuz gero, ikusiko dugu **erakunde handiek**, zeinek eskuarki soldatapeko langile gehiago izaten baitituzte lantaldeetan, neurri handiagoan dituztela osasun arriskuak eta psikosozialak, jarduera eteteagatik izandako enplegu-erregulazioko espedienteak edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, gaixotasunagatikko bajak, kontratuak ez berritzea alarma-egoerak irauten duen bitartean, jarduera kudeatzeko zailtasunak lan-baldintzetan izandako aldaketengatik eta kontratazio-baldintzetan izandako aldaketak.

Erakunde txikiak eta ertainak, berriz, neurri handiagoan dituzte boluntarioak kudeatzearekin lotutako arazoak (komunikazioa, mobilizazioa, jarduteko irizpide argirik ez izatea...). Horrek koherentzia du erakunde txiki eta ertainetako lantaldeetako boluntarioen pisuarekin.

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da erakunde handien proportzio zabal batek arrisku psikosozialak aurreikusten dituela (estres egoerak, higadura emozionala...) boluntarioen eta ordainpekoen artean.

11. TAULA: COVID-19AK ERAGINDAKO KRISIAREN ONDORIOZ ERAKUNDEEK EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK BOLUNTARIOEI ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEI DAGOKIENEZ, NEURRIAREN ARABERA. (%)

BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK	GAUR EGUN	
	Txikiak eta ertainak	Handiak
Osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...)	% 39,7	% 58,5
Arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)	% 48,7	% 74,5
Jarduera eteteagatik izandako EEEak edo ABEEak	% 12,8	% 33,0
Gaixotasunagatikko bajak edo berrogeialdia	% 16,7	% 66,0
Alarma-egoerak irauten duen bitartean kontratuak ez berritzea	% 5,1	% 22,6
Jardueraren kudeaketan arazoak lan-baldintzetan oinarritzko aldaketak daudelako (telelana, kontziliazioa...)	% 64,1	% 72,6
Boluntarioak kudeatzearekin lotutako zailtasunak	% 46,2	% 36,8
Aldaketak kontratazio-baldintzetan	% 53,8	% 66,0

Lurralde historikoa

Analisia **lurralde historikoaren** arabera egiten baldin badugu, ikusiko dugu hiruretan ere erakundeek aurre egin beharreko arazo handienak hauek direla: lan-baldintzetan oinarritzko aldaketak izatea (telelana, kontziliazioa...), arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...) eta kontratazio-baldintzetan izandako aldaketak. Oro har, badijadi egoerak eta arazoak gehiago daudela lotuta erakunde-motarekin eta ez horrenbeste jarduera gauzatzen duten lurraldearekin. Hori dela eta, ez dago gehiago sakondu beharrik lurralde-analisan.

12. TAULA: COVID-19AK ERAGINDAKO KRISIAREN ONDORIOZ ERAKUNDEEK EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK BOLUNTARIOEI ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEI DAGOKIENEZ, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK	GAUR EGUN		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...)	% 55,3	% 48,6	% 51,2
Arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)	% 63,2	% 61,9	% 68,3
Jarduera eteteagatik izandako EEEak edo ABEEEak	% 15,8	% 29,5	% 19,5
Gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdia	% 42,1	% 45,7	% 46,3
Alarma-egoerak irauten duen bitartean kontratuak ez berritzea	% 13,2	% 16,2	% 14,6
Jardueraren kudeaketan arazoak lan-baldintzetan oinarritzko aldaketak daudelako (telelana, kontziliazioa...)	% 76,3	% 70,5	% 58,5
Zailtasunak borondatezko pertsonen kudeaketarekin lotuta (komunikazioa, mobilizazioa, jarduteko irizpide argien gabezia...)	% 44,7	% 41,0	% 36,6
Aldaketak kontratazio-baldintzetan	% 50,0	% 63,8	% 63,4

4.3.3. Begirada espezifiko bat kezka nagusien gainean

Erakundeek zailtasun handiak dituzte **segurtasun-materiala** hornitzeko zuzeneko arreta eskaintzen ari diren pertsoneri; esaterako, etxerik gabekoei. Kasu hori bereziki kezagarria da; izan ere, harreman zuzena dute arrisku-populazioarekin, eta ez daude lehenetsita COVID-19aren testak egiteko garaian. Sintomak ageri zituzten ordainpeko hainbat pertsona bajaran egon dira, baina, ez zegoenez testik egiteko, ezin izan dute egiaztatu birusa eduki ote duten ala ez.

Egoitza-zerbitzuak dituzten hainbat erakundek (desgaitasun intelektuala dutenak, osasun mentaleko arazoak dituztenak edo adineko pertsonak artatzen dituztenak) beren funtsekin eskuratu dituzte norbera babesteko ekipamenduak, profesionalen segurtasuna bermatzeko, harik eta Osakidetzak eta foru-aldundiek agindutako materiala iritsi arte. Halaber, norbera babesteko ekipamenduak ez izateak arrisku-egoerak eta beldur-pertzepzioa ere sorrarazi ditu. Halako egoeretan, hainbat erakundetako profesionalak beren etxetik kanpo bizitzeko aukerari heldu diote, familiak infektatzea saihesteko.

Erakundeek arreta berezia jartzen die profesionalak aurre egin behar izaten dieten **arrisku psikosozialei**. Indarkeria jasaten duten emakumeekin jarduten duten zerbitzuetan, estres emozionaleko egoerak hauteman dituzte, arrisku-egoerei aurrez aurre eusteko gauza ez zirelako eta, batzuetan, erantzun-gaitasun apala zutelako.

Adinekoak artatzen dituzten erakundeetan, berriz, hausnartzen ari dira norbere burua zaintzeko deskuiduak profesionalen artean eragindako ondorioez, eta egoera hori lantzen ari dira. Esate baterako, hainbat prestakuntza eta babes psikologiko berregokitzen ari dira *burnout* sindromera bideratzeko –hots, profesionalen arteko dolua eta bizi ditzaketen egoera gogorragoak kudeatzea–, batez ere mendetasun-egoeran dauden pertsonen etxeetan. Halaber, ikusten da kudeaketa emozionala egiteko espazioak sortu beharra dagoela, hasierako larrialdi-egoera igarotzen denean.

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zaintzaileen estresa askoz ere handiagoa da, eta etxebizitza horietara ez dira iristen arnasa-bitartekoak. Zainketa-egoerak zailak baldin badira kudeatzen, areagotzen ari dira estres-egoerak; izan ere, babes espezializatuak falta dira mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat, eta egoera hondatzen ari da.

Zuzeneko arreta-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak **gainkarga** ageri dute lanean, esate baterako, egoitza-zerbitzuetan. Alarma-egoeraren lehendabiziko asteetan, erakundeek zailtasunak zituzten profesionalak protokoloak bete zituzten; izan ere, ez zegoen ekipamendurik,

antolatzen gaitasunik, hornitzaile... Egoera hori profesionaltasun eta ardura handiz jasan dute zuzeneko arreta eskaintzen duten taldeek. Gehienek zerbitzu zailak atera dituzte aurrera, presio handia izanik ere.

Haurren alorreko arreta eskaintzen jarduten duten erakunde batzuek, zeinek zerbitzuak baitaizkate kontrataturik administrazio publikoekin, adierazi dute administrazioek erakundeei eskatzen dietela jakinarazteko zer dedikazio duten zuzeneko arretan. Erakundeek ohartarazten dutenez, profesionalek erabateko konpromisoa eta eskuragarritasuna dute, eta, hain zuzen, gainez eginda dabilta. Hori dela eta, ez zaie egokia iruditzen dedikazio-txostenak eskatzea. Gero eta kezka handiagoa dute administrazioak kontrola egiteko moduei buruz (segimendu-txostenak eta abar); izan ere, horrek behartuko lituzke erakundeak «justifikatzeko behararekin» bizitzea, ahaleginak eta egindako lan guztiak kontabilizatuz, ordainketak egiten direla bermatzeko.

Hainbat erakundeek **egitekoak eta lanaldiak egokitu edo aldatu behar izan dizkiete** soldatapeko langileei. Desgaitasuna duten pertsonekin edo adinekoekin lan egiten duten erakundeetan, alarma-egoera deitu zutenetik izandako lehentasuna egoitza-zerbitzuei eustea izan da, eta 24 orduko arreta edukitzera igaro dira. Premia handia izanagatik ere, erakundeek gastuari eutsi behar izan diote.

Profesional gehien-gehienek salbuespen-egoerak izan dituzte, eta aldaketak eduki dituzte lan-baldintzetan (ordutegiak, lanaldiaren banaketa, lantokiaren kokapen fisikoa). Beste horrenbeste gertatu da desgaitasunak edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako etxebizitzekin edo pisu tutelatuarekin. Gaixotasunagatik bajak edo berrogeialdiak eraginda, langile gehiago behar izan dira; horren ondorioz, adineko pertsonekin lan egiten duten erakundeek pertsona gehiago kontratatu dituzte, maiz titulaziorik gabeak ere bai, salbuespeneko araudi berriak hala ahalbidetzen duen aldetik.

Etendako edo bertan behera utzitako zerbitzuetan, profesionalak berregokitu edo eskari gehiagoko beste zerbitzu batzuetara birbideratu dira ahal izan den neurrian, edo gaixotasunagatik bajak edo berrogeialdiak zituzten tokietara bidali. Erakundeak kezkatu ageri dira zer gertatuko ote den geldirik geratu diren zerbitzu horiekin eta zerbitzu horietako profesionalekin epe ertainean. Era berean, beldur dira ez ote dituzten lortuko aurreikusita zeuzkaten soldata-eguneratzeak. Etorriko den finantzaketa-agertoki berriak ziurgabetasuna eragiten du erakundeen lanpostuak mantentzeko izan dezaketen gaitasunari buruz.

Profesionalek erakundeei **babes espezializatuak** eskatu dizkietenean, erakundeek ahalegina egin dute eskari horiei erantzuteko. Osasun-arretako profesionalen kasuan, informazio-falta handia izan da zer-nola jokatu edo laneko arriskuen gainean, eta erakundeak arintzen saiatu dira.

Mendetasun-egoeran dauden adinekoekin lan egiten duten erakundeetan eta etxeko laguntza-zerbitzuak dituztenetan, zailtasunak ikusten dituzte **lan-baldintzetan**, etxeetan lan egiten duten pertsonetarako. Pertsona horietako asko gizartratze-bideetatik etorriak dira, eta ikusten dute familia askok etxetik bidali egiten dituztela, kutsatu egingo ote dituzten beldurrez. Aldiz, beste egoera batzuetan familiek eskatzen diete ez uzteko inoiz etxea, kasu horretan ere kutsatzeko beldurragatik. Eta horrekin ere lan-eskubideak galtzen dituzte.

Erakundeak saiatu dira ez martxan ipintzen enplegu-erregulazioko espedienteak edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, baina kasu batzuetan ez dute beste erremediorik izan. Posible izan dutenetan, beste nonbait kokatu dituzte bertan behera geratutako edo atzeratutako zerbitzuetako profesionalak. Praktiketara ari ziren pertsonak geratu egin dira.

Sareek hauteman dute informazio-eskaera (kontsulta) gehiago dagoela Bizkaian, bereziki aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin eta baja medikoekin loturik. Gipuzkoan eta Araban, gutxiago bada ere, eskatzen da informazioa lan-kontuekin, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin eta halakoekin loturik.

Posible izan denetan, erakundeek soldatapeko pertsonen **telelanean** jardutea bultzatu dute, lan-bizitza bateragarri egiteko erraztasunak emanaz. Horretarako, gailu informatikoak eman behar izan dizkiete profesionalei. Hala ere, telelana ez da beti posible, hainbat arrazoi direla eta. Batzuetan ez dago ordenagailu eramangarririk pertsona guztientzat; hori dela eta, ordenagailu pertsonalak baliatzen dituzte. Beste kasu batzuetan, profesionalek zailtasunak izan ditzakete datuak babesteko araudia bermatzeko, baldin eta hartzailleekin harremanetan egoten jarraitu nahi badute. Horretaz gainera, etxeetako aparailu teknologikoak ez dira beti eskura egoten; seme-alabak edukiz gero, etxerako lanak egin behar izaten dituzte, eskolak izaten dituzte online... Erakundeek nabarmendu dute, era berean, oso txikia dela laneko deskonexioa. Horrek estresa eta ondoeza eragiten du familian, eta bistaratzen da kasu batzuetan ezinezkoa dela kontziliazioa, egindako lanaren produkzioan eragiteraino.

Erakunde batzuen kasuan, kontziliazio-zailtasunak dituzten pertsonentzat ordaindu gabeko baimenak arindu dira, nahiz eta uste baino gutxiago eskatu dituzten.

Enplegu-zentro berezien kasuan, hainbat eratako egoerak gertatu dira. Pertsona batzuek ez diote utzi lan egiteari, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen baitituzte, hala nola egoitzetako garbitasuna. Beste pertsona batzuk aldi baterako ezintasun-egoeran daude, beren urrakortasun bereziak eragindako arazo oso espezifikoak direla eta (desgaitasuna duten pertsonak, adibidez). Aldi baterako ezintasun horri gaineratu behar zaio egun guztian partekatutako pisuak edo etxebizitzan egon behar izaten dutela. Oinarrizkoak ez diren jardueretan aritzen ziren beste pertsona batzuek geldialdia izan duten beren jardunean, edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan daude.

Boluntarioei dagokienez, erakunde batzuek adierazten dute indartu egin dela beren ehun soziala COVID-19aren krisialdia hasi zenetik, nahiz eta zailtasunak izan boluntarioak kudeatzerakoan. Boluntario askok eta askok konpromiso handia izan dute erakundeekin, nahiz eta partaidetza orotatik salbuetsi diren alarma-egoera hasi zenean. Adineko pertsonen erakundeetan, «boluntarioen ezlandaz» ere hitz egiten dute, jasotzen ari diren lankidetzakeinuak direla eta; kolaboratzaileen eta boluntarioen sarea zabaldu da, eta erakundeak gero eta handiagoa den sare hori babesten saiatu dira. Era berean, aisialdiaren eremuan, boluntarioekin saiatu dira elkarte-bizitzari eusten, sare sozialak landuz, bideoak eginez, pertsonak elkarrekin harremanetan edukiz...

Hala eta guztiz ere, konplikatu egin da boluntarioei eskaini beharreko arreta. Erakundeek, halaber, zailtasunak dituzte boluntarioei babesa eta segimendua helarazteko. Boluntarioen zaintza bigarren planora igaro da, laguntza-falta ageri da, ez dago bitartekorik haien osasuna zaintzeko, langile kualifikatu gutxi daude boluntario-taldearen arduradun gisa, eta abar. Hainbat elkarte txiki eta ertainek zaila ikusten dute boluntarioekin aurrera begira konexioa gordetzea. Hezkuntzaren eta aisialdiaren eremuan, beldur dira ezeztatzen ari diren jarduerak direla eta boluntarioek jarduera horri «utzi» egingo ote dioten, hau da, erakundearen bizitzarako horren funtsezkoak diren boluntarioak galdu egingo ote dituzten, ezin baitute jardueretan parte hartu.


4.4. Finantzaketarekin eta bitarteko ekonomikoekin loturiko inpaktua

4.4.1. Egungo eragin nagusiak eta epe laburreko aurreikuspena

Erakundeen egoera ekonomikoak eragin handiak izan ditu alarma-egoerak sortutako egoera dela eta. Aurrez aurre dituzten arazo jakinez gainera, ziurgabetasun handia ageri da, zer-nola eragingo ote dion egoerak finantzaketari.

Hain zuzen ere, **finantzazioari buruzko ziurgabetasuna** da gaur egun, epe laburreko aurreikuspenen artean, erakundeen artean gehien zabaldua dagoen arazoa. Era berean, nabarmentzekoak dira **finantzaketa propioaren % 10etik gorako murrizketak eta ordainketa publiko zein pribatuetan aurreikusi dituzten atzerapenak**. Hartzaileekin, zerbitzuekin edo ordainpeko langileekin loturiko arazoekin edo egoerekin gertatzen ez den bezala –horietan badirudi hurrengo hilabeteetan hobetzeko aurreikuspena dela–, bitarteko ekonomikoekin loturiko aurreikuspenek adierazten dute arazoak areagotu egingo direla 2020an zehar.

6. GRAFIKOA: ERAKUNDEEK UNEOTAN ETA EPE LABURREAN (2020) BITARTEKO EKONOMIKOekin LOTUTA IZANGO DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK, COVID-19AREN KRISIALDIAREN INPAKTUA DELA ETA. (%)



Zehazki, erakundeen % 63,6k adierazten du **ziurgabetasuna bizi duela finantzaketari dagokionez**, eta % 73,4k dio biziko duela halakorik epe laburrean. Zalantzarik gabe, erakundeak gehien kezkatzen dituen auzietako bat da hori, kinka larrian ipintzen baitu bizirik jarraitzeko bidea. Ez dakite noiz ebatziko dituzten laguntzak eta diru-laguntzak, eta ez dakite murrizketarik izango ote den haien zenbatekoetan edo etorkizuneko hitzarmenetan. Ez dakite administrazio publikoak jakitun ote diren lan-kargan izandako hazkundean, nahiz eta jarduerak etenda egon; ez dakite osasun-larrialdiarekin loturiko finantzaketa-lerroak eskuratu ahal izango dituzten, etorkizunean egin ahalko duten finantzaketa pribatuaren zati bat galdu ostean, gizarte-larrialdiak sorturiko gastuak ordaindu ahalko dituzten, itunduta zeuzkaten soldata-igoerak gauzatu ahalko dituzten, sustatzaile pribatuek babesa eskaintzen jarraitzeko modurik izango ote

duzen, gastu estrukturaleri aurre egiteko modurik izango den (alokairua, hornidurak, aseguruak...) eta abar.

Finean, ez dakite erakundeok gauza izango ote diren zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko etorkizun hurbilean.

Finantzaketa propioari dagokionez (kuotak, zerbitzu-prestazioak, ekitaldiak, produktuen salmenta, kanpainak...), erakundeen % 31k gaur egun % 10 baino gehiago murriztu dituzte. Hurrengo hilabeteetarako egindako aurreikuspenean, erakundeen % 41,8k adierazten du murrizketa hori izango dutela finantzaketa propioan.

Lau erakundetatik batek **atzerapenak ditu kobrantzetan** (izan publikoak zein pribatuak). Epe laburrean, erakundeen % 48,4k aurreikusten du atzerapenak izango dituztela kobrantzetan.

Erakundeen % 17,8k **etenda dauzka kontratu edo diru-laguntza publikoak**; horrek arriskuan ipintzen ditu hainbat proiektu, eta kaleratzeak ekarriko lituzke. Epe laburreko aurreikuspenean, ehuneko hori % 35,3ra igotzen da.

Erakundeen % 14,7 uneotan **likidezia-arazoekin edo mailegu-premiarekin dabil**. Hurrengo hilabeteetara begira, erakundeen % 38k aurreikusten du likidezia-falta izango duela edo maileguren bat beharko duela. Inguruabar horiek ziurgabetasun handia sorrarazten dute soldatak ordaintzeko ezintasunarekin eta zerbitzu nuklearrak eskaintzearekin loturik.

Erakundeen ia % 11k adierazten du gaur egun **zailtasunak nabari dituela pertsona askorengan kuotak eta/edo baterako ordaintetarako mantentzeko** (bazkideen kuotak murriztea, baterako ordaintetarako ez ordaintzea eta abar). Epe laburreko aurreikuspenean, erakundeen % 20,1ek zenbatesten du zailtasunok izango dituela.

Hamar erakundetatik batek adierazten du **areagotu egin diotela finantzaketa publikoa** osasun-krisialdiak eragindako inpaktuari erantzun ahal izateko, eta % 12,5ek aurreikusten du finantzaketa publikoa areagotu egingo dela, arrazoi hori bera dela eta. Halaber, hamar erakundetatik batek adierazi du **% 10etik gorako murrizketa duela finantzaketa publikoan**. 2020rako, erakundeek % 35,3k aurreikusten dituzte halako murrizketak.

Horretaz gainera, erakundeen % 13k azaldu du **bestelako arazoak ere badituztela** bitarteko ekonomikoari dagokienez; batez ere produktuen salmentan izandako beherakadak, hitzarmenean aurreikusitako soldata-igoeretan murrizketak egin beharra, eskaintzeari utzitako zerbitzuak baina aktibo ez egonda ere gastua eragiten dutenak, administrazio publikoen eskakizun zorrotzak eskaintzen ari diren jarduerak justifikatzea, gastua aurreratzea edo aurrekontuan sartu gabeko ezusteko gastuak.

Era berean, nabarmentzen da hainbat erakundek ez zutela lortu 2008ko krisiaren aurreko egoera ekonomikora itzultzea, eta COVID-19aren krisiak are gehiago larrituko duela haien egoera. Hezkuntzako eta aisialdiko hainbat erakunderen kasua da hori, edo haurrei, nerabeei eta haien familiei arreta eskaintzen dietenena.

4.4.2. Desberdintasun batzuk erakundeen ezaugarrien arabera

Erakundeen bitarteko ekonomikoari dagokienez, kontuan hartu behar da **erakundearen neurria** dela bitarteko ekonomikoari dagokienez alderik garrantzitsuenak markatzen dituen aldagaia,

nahiz eta gainerako banaketen informazioak (erakundeen lurraldea, kontingentzia eta eremua) ñabarduraren bat eragiten duen.

Artatutako kontingentzia

Aipatu dugun moduan, **finantzazioari buruzko ziurgabetasuna** da erakunde gehienek bizi duten egoera nagusia; edonola ere, nabarmendu behar da dezente txikiagoa dela babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten eta finantza-egoera horretan dauden erakundeen ehunekoak, artatutako gainerako kontingentziekin alderaturik.

Finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztu izana eta **kontratu edo diru-laguntza publikoak eten izana** gehiago ageri dira mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeen artean.

Bestalde, **ordainketetan atzerapenak izatea** (finantzaketa publiko zein pribatutik dela ere) eta **finantzazio publikoa ugaritzea osasun-arloko krisiaren inpaktuari erantzuteko** gehiago ageri dira bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin diharduten erakundeetan.

13. TAULA: COVID-19AREN KRISIAREN ONDORIOZ, ERAKUNDEEK BITARTEKO EKONOMIKOekin LOTURIK GAUR EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK, KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

BALIABIDE EKONOMIKOAK	GAUR EGUN				
	Mendeko-tasuna	Bazterkeria	Babesgabetasuna	Desgaitasuna	Beste batzuk
Likidezia-gabezia / maileguen beharra	% 0	% 15,9	% 6,3	% 16,7	% 16,1
Atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua)	% 14,3	% 31,7	% 12,5	% 25,0	% 22,6
Finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea	% 42,9	% 34,9	% 31,3	% 27,8	% 27,4
Dohaintzak eta ondareak % 10 baino gehiago handitzea	% 0	% 1,6	% 0	% 0	% 0
Kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea	% 28,6	% 17,5	% 18,8	% 16,7	% 17,7
Finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea	% 14,3	% 12,7	% 6,3	% 16,7	% 4,8
Finantzazio publikoa ugaritzea osasun arloko krisiaren inpaktuari erantzuteko	% 14,3	% 19,0	% 6,3	% 2,8	% 6,5
Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna	% 71,4	% 63,5	% 37,5	% 66,7	% 67,7
Pertsona ugarik kuotak edota ordainketa partekatutako mantentzeko zailtasunak	% 0	% 6,3	% 0	% 8,3	% 21,0

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin diharduten erakundeen proportzio zabal batek ziurgabetasuna aurreikusten duela finantzaketari dagokionez, baita babesgabetasun-egoerarekin edo -arriskuarekin dihardutenek ere. Halaber, nabarmendu behar da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin jarduten duten erakundeen proportzio zabal batek atzerapenak aurreikusten dituela kobrantzetan (finantzaketa publikoa edo pribatua), baita eta kontratu edo diru-laguntza publikoak etetea ere.

Jarduera-eremua

Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna, nahiz eta erakundeen artean egoera orokortua izan, badirudi gehiago ageri dela enplegu-erakundeetan eta sozial-zeharkakoetan.

Likideziarik eza, ordainketetan izandako atzerapenak (finantzaketa publikoa zein pribatua), **finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea** eta **kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea** larriagoak dira enplegu-erakundeetan.

14. TAULA: COVID-19AREN KRISIAREN ONDORIOZ, ERAKUNDEEK BITARTEKO EKONOMIKOEKIN LOTURIK GAUR EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK, EREMUAREN ARABERA. (%)

BALIABIDE EKONOMIKOAK	GAUR EGUN						
	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapen. Naz. lan.	Soziala-Zehark.	Beste batzuk
Likidezia-gabezia / maileguen beharra	% 17,6	% 33,3	% 9,6	% 0	% 0	% 21,9	% 33,3
Atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua)	% 5,9	% 51,9	% 23,3	% 18,8	% 12,5	% 28,1	% 0
Finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea	% 41,2	% 63,0	% 16,4	% 37,5	% 18,8	% 31,3	% 66,7
Dohaintzak eta ondareak % 10 baino gehiago handitzea	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 3,1	% 0
Kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea	% 17,6	% 33,3	% 12,3	% 31,3	% 6,3	% 15,6	% 33,3
Finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea	% 5,9	% 22,2	% 12,3	% 6,3	% 0	% 3,1	% 33,3
Finantzazio publikoa ugaritzea osasun arloko krisiaren inpaktuari erantzuteko	% 5,9	% 18,5	% 13,7	% 0	% 12,5	% 3,1	% 0
Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna	% 58,8	% 74,1	% 58,9	% 62,5	% 50,0	% 71,9	% 100,0
Pertsona ugariak kuotak edota ordainketa partekatutako mantentzeko zailtasunak	% 11,8	% 11,1	% 6,8	% 6,3	% 0	% 25,0	% 33,3

Datozen hilabeteetan, enpleguan, gizarte-zerbitzuetan, hezkuntza eta aisialdian eta garapenerako nazioarteko lankidetzan diharduten erakundeek ziurgabetasuna espero dute finantzaketari dagokionez. Halaber, enplegu-erakundeen proportzio handi batek atzerapenak aurreikusten ditu jatorri publiko edo pribatuko ordainketetan.

Erakundearen neurria

Erakundearen neurriaren arabera egindako datuen analisiak erakusten duenez, **erakunde handiek** neurri handiagoan bizi dituzte likidezia-falta edo maileguen premia, atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua), finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea, edo finantzaketa publikoa areagotzea osasun-krisiaren inpaktuari erantzuteko.

Erakunde txikiak eta ertainak, berriz, proportzio handiagoan adierazten dute finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea, kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea eta pertsona ugariak kuotak edota ordainketa partekatutako zailtasunak izatea.

15. TAULA: COVID-19AREN KRISIAREN ONDORIOZ, ERAKUNDEEK BITARTEKO EKONOMIKOEKIN LOTURIK GAUR EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK, NEURRIAREN ARABERA. (%)

BALIABIDE EKONOMIKOAK	GAUR EGUN	
	Txikiak eta ertainak	Handiak
Likidezia-gabezia / maileguen beharra	% 12,8	% 16,0
Atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua)	% 19,2	% 29,2
Finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea	% 32,1	% 30,2
Dohaintzak eta ondareak % 10 baino gehiago handitzea	% 1,3	% 0
Kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea	% 19,20	% 17,00
Finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea	% 3,8	% 15,1
Finantzazio publikoa ugaritzea osasun arloko krisiaren inpaktuari erantzuteko	% 2,60	% 16,00
Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna	% 62,8	% 64,2
Pertsona ugariak kuotak edota ordainketa partekatutako zailtasunak	% 17,90	% 5,70

Datozen hilabeteetan, erakunde handien proportzio handi batek aurreikusten ditu ziurgabetasunak finantzaketarekin loturik, baita atzerapenak ere ordainketa publiko zein pribatuetan.

Lurralde historikoa

Datuak **lurralde historikoen** arabera aztertuz gero, ikusiko dugu honako hauek direla hirurek ere partekatzen dituzten arazo nagusiak: finantzazioari buruzko ziurgabetasuna, finantzaketa pribatua % 10 baino gehiago murriztea edo atzerapenak ordainketetan (publikoak zein pribatuak). Tentu handiz bada ere, azpimarratu dezakegu (izan ere, badira beste hainbat aldagai lurralde historikoz harago, azterturiko arazoak baldintzatzen dituztenak) Bizkaian erakunde gehiagok dutela finantzaketaren inguruko ziurgabetasuna gainerako lurraldeetan baino, edo Gipuzkoako erakundeek finantzaketa propioaren murrizketa handiagoa espero dutela.

16. TAULA: COVID-19AREN KRISIAREN ONDORIOZ, ERAKUNDEEK BITARTEKO EKONOMIKOEKIN LOTURIK GAUR EGUN DITUZTEN ARAZOAK ETA EGOERAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

BALIABIDE EKONOMIKOAK	GAUR EGUN		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Likidezia-gabezia / maileguen beharra	% 7,9	% 16,2	% 17,1
Atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua)	% 23,7	% 27,6	% 19,5
Finantzaketa propioa % 10 baino gehiago murriztea	% 21,1	% 31,4	% 39,0
Dohaintzak eta ondareak % 10 baino gehiago handitzea	% 0	% 1,0	% 0
Kontratuak edo diru-laguntza publikoak bertan behera gelditzea	% 15,8	% 20,0	% 14,6
Finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea	% 5,3	% 9,5	% 17,1
Finantzazio publikoa ugaritzea osasun arloko krisiaren inpaktuari erantzuteko	% 13,2	% 11,4	% 4,9
Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna	% 57,9	% 67,6	% 58,5
Pertsona ugari kuotak edota ordainketa partekatuek mantentzeko zailtasunak	% 7,9	% 10,5	% 14,6

Datozen hilabeteetara begira, nabarmentzekoa da Bizkaiko erakundeen proportzio zabal batek ziurgabetasuna nabari duela finantzaketari buruz.

4.4.3. Begirada espezifiko bat kezka nagusien gainean

COVID-19ak erakundeen bitarteko ekonomikoetan eragindako inpaktuak ondorio nabarmenak ditu dagoeneko, baina, batez ere, ziurgabetasun handia ari da sortzen datozen hilabeteetan zer gertatuko ote den.

Oro har, erakundeek nabarmentzen dute **urgentzia kudeatzeak** daukela lehentasunik handiena, eta kudeaketa horretantxe ari dira, nahiz eta gastu gehigarria ekarri. Esate baterako, ez dira bitarteko gutxi erabili norbera babesteko ekipamenduak erosteko, garbiketa-zerbitzuak indartzeko, zerbitzu batzuetako langileei errefortzuak gaineratzeko beste batzuk itxita daudelako, zerbitzu berriak sortzeko... Bereziki kezagarria da zer gertatuko ote den diru-laguntzekin, lizitazioekin, kontratuekin eta bestelako finantzaketa-iturriekin, zerbitzu batzuek horren ondorioz ateak itxi baititzaizkete.

Horretaz gainera, oso konplexua da testuinguru horretan **kudeaketa-arauak planifikatzea eta garatzea**. Litekeena da erantzun beharreko bestelako beharrezkoak sortzea, baina zein sortuko ote diren ez jakiteak galarazi egiten du proposamenak aurkeztea edo finantzaketa eskatzea egiteko. Uda-parterako aisialdirako zerbitzuen eta jardueren kasuan, zer-nola erantzun familiak planteatzen ari diren premiei, ez dagoenean garbi zer eskaini ote daitekeen eta nola.

Alde horretatik, erakundeek ez dakite jarduerarekin jarraitu edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente eskatu, laguntzak eskuratu ahal izateko. Kezka handia sortzen du

pertsonen lanpostuak gordetzeak, eta «gihar ekonomikoa» zuten erakundeek hobeto jasan dituzte COVID-19aren krisialditik eratorritako lan-aldaketak, nahiz eta ezin den ukatu haren inpaktua bolumen ekonomikoan.

Zerbitzuak itxi behar izan dituztenean, erakundeak saiatu dira lanpostuak «birmoldatzen», mantendu ahal izateko. Zerbitzuak aldatu direnean, egokitzapenak edo ordutegi-aldaketak planteatu dituzte, lanpostuei eutsi ahal izateko.

Erakundeek nabarmentzen dute, era berean, **lan-hitzarmenak** betetzeko beharrezkoa izango dela administrazio publikoen sentikortasuna, eta zaila izango dela hitzarmenean itunduta dauzkaten soldata-igoerak etorkizunean aplikatzea.

Zerbitzu batzuetako **likidezia-falta** –kontratuak edo diru-laguntzak ordaintzeko moduagatik– ohikoa zen COVID-19aren krisiaren aurretik ere, eta bizi-bizirik dago egoera hori are gehiago larrituko ote den datozen hilabeteetan.

Bestalde, jarduera bateko ordainketa jasotzeko haren zati bat edo ehuneko bat egin beharra baldin badago, baina jarduera hori bertan behera gelditu baldin bada alarma-egoeraren ondorioz, erakundeek ez dakite ordainketa hori atzeratu egingo ote den harik eta azkenean jarduera hori egin ahal izan arte, edo ez ote den gehiago egingo, erabat bertan behera geratu delako (**kontratuak edo hitzarmenak aldi baterako etetea edo erabat baliogabetzea**). Hori gertatzen da, konparazio batera, udalekuekin edo arnasa hartzeko zerbitzuekin, besteak beste.

Desgaitasuna duten pertsonak edo adinekoak zuzenean artatzen dituzten hainbat erakunde beren funtsekin erosi behar izan dituzte norbera babesteko ekipamenduak, beren zerbitzuetako osasun-segurtasuneko arazoei aurre egiteko, garbitasun-zerbitzuak indartu behar izan dituzte, ratioak areagotu dituzte etxebizitza tutelatuetan –egonaldi-orduak areagotu izanagatik–, eta abar. Horrek guztiak **gastua areagotzea ekarri du**. Horren ondorioz, **kreditu-lerroak** ugaritu dira, premiari eta **kutxa-arazoei** aurre egin ahal izateko. Kasu batzuetan, arazo horiek larriagotu egin dira, erakunde publikoaren fakturen kobrantzak atzeratu izanagatik; hori gertatu da, konparazio batera, itxi beharrean izan diren eguneko zentroekin, eta haien finantzaketa duda-mudan dago, gainera.


Indarrean jarraitzen dute erakunde publikoekin sinaturiko **hitzarmenek eta lizitazioek**, baina, esaterako, haurrei eta familiei arreta eskaintzen dieten erakundeetan, gero eta informazio eta txosten gehiago eskatzen dituzte jarduerari buruz, justifikatu ahal izateko. Alde horretatik, kezagarria da epe luzeko hitzarmenak kolokan ipintzea, zerbitzuetan eta haien finantzaketan izandako murrizketak direla eta. Era berean, beldur dira datozen lizitazioetan bitarteko gutxiago izango ote den lehian eta, aldiz, muga gehiago lehiaketetan parte hartzeko; litekeena da, halaber, beste lizitazio batzuk planteatu ere ez egitea.

Diru-laguntza publikoak geldirik daude. Desgaitasuna duten pertsonen erakundeetan, diru-laguntza nominatiboan edo erakunde pribatuen bidez finantzatzen diren zerbitzu bakan batzuk kenduta, gainerako diru-laguntzak esperoan daude. Diru-laguntza publikoen atzerapenak are larriago astintzen ditu erakunde txikiak eta ertainak, eskuarki gehienbat boluntarioz osatuak. Hori horrela, kezka bizia sortzen du haien etorkizunak.

Erakundeen **finantzaketa pribatuak** ere izan du kolperik. Bukatu egin dira, adibidez, haurrekin lan egiten duten erakundeekin erakunde pribatuekin egindako kontratuak. Diru-laguntza pribatu batzuk ere bertan behera geratu dira, laguntza horiek beste partida ekonomiko batzuetara bideratzen baitituzte.

5. AZKEN GOGOETA BATZUK

Amaitzeko, hainbat zeharkako ideia edo faktore eskaini nahi izan ditugu azterturiko dimentsio bakoitzerako (hartzaileak, zerbitzuak eta jarduerak, boluntarioak eta ordainpekoak, eta bitarteko ekonomikoak), erakundeen profiletatik independenteagoa eta orokorragoa den moduan, COVID-19ak sorturiko krisiak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeetan izandako inpaktuari buruz.



Hartzaileak

Oro har, hainbat zeharkako auzi edo elementu ageri dira COVID-19ak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen hartzaileetan izandako inpaktuan: ikusezintasuna, estigmatizazioa, erresilientzia eta babes-sare naturalen balioa.

Atentziona ematen duen lehendabiziko kontua da diskurtso publikotik **ikusezin geratzen direla** Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen hartzaile asko eta asko. Salbuespenak salbuespen, iritzi publikoak, komunikabideek edo sare sozialek apenas eman dute desgaitasuna duten pertsonen, emakumeen edo haurren egoera espezifikoaren berri (hasieran, behintzat). Ikusezintasun horrek kezka bizia sortzen du erakundeetan, ez baita inolako foku sozial edo mediatikorik ipintzen haiengan.

Osasun-larrialdiaren aurrean, ulertzen da lehendabizi erantzun instituzional bat eman nahi dela, lehenatasuna duten kolektibo batzuetara bereziki zuzendurik. Baina, denboraren joanarekin, agerian geratu da ez zaiela arreta sozialik eskaini kolektibo hauskorrei, jakinik haien egoera ere bereziki larria dela. Berez Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeko hartzaile asko eta asko gizartean ikusezinak baldin badira, ez dirudi COVID-19ak eragindako krisiak are ikusgarriago egin dituenik.

Hartzaile-kolektiboek bizitako beste zeharkako auzi bat **gizarte-estigmatizazioa** da, batez ere komunikabideen arreta izan dutenek bizitakoa. Alegia, adinekoak, etorkinak edo ijitoak.

Etorkinen kasuan, jokabide konkretu batzuek izandako inpaktu mediatikoak (batez ere poliziaren esku-hartzeekin loturik) edo etorkinekin loturik bolo-bolo dabiltzan gezurrek eragina dute haien irudian eta estigmatizazioan. Antzeko pertzepzioa gertatzen da ijitoen kasuan ere; behin eta berriz leporatu izan diete COVID-19aren kutsadura-fokuen eragile izatea.

Adineko pertsonekin loturik, arrisku-kolektibo gisa estigmatizatuta edukitzeak eragina izan du haien gogo-aldartean eta egiteko sozialean. Beldurra eta kezka sortzen du zenbat denbora igaro behar ote duten konfinamenduan, ez baitakite nolakoak izango ote diren haien harreman sozialak eta gizartean izango dute egitekoa: zer toki sozial eta sinboliko izango duten gizartean, COVID-19aren krisia gaingaitzen denean.

Haurren alorrean ere, sintomarik gabeko kolektibo kutsatzaile gisa seinlatu dira. Neska-mutilak aurki kalera irteteak hainbat eratako erantzunak jaso ditzake, eta erakundeak kezkatu daude gizartean izan dezaketen errefusagatik edo haiekiko ezarriko den urruntzeagatik.

Oro har, badirudi hartzaileek egoera berrietara **egokitze gaitasun handia** izan dutela, alarma-egoera deitu zen unetik aurrera.

Babesgabetasun-egoeran dauden adinekoek eta hurrek, desgaitasuna duten pertsonak eta beste hainbat kolektibok beren bizitzak egokitu behar izan dituzte konfinamendura, eta **erresilientzia** handia erakutsi dute. Harrigarria da zer-nolako erantzun positiboa eman dioten egoera berriari, erakundeek adierazi dutenez. Nahiz eta tentsioak edo egoera gatazkatsuak sor daitezkeen, oro har erantzuna izan da erabat egokitu direla testuingurura. Baina erakundeek galdetzen dute noiz arte mantendu ahal izango duten erantzun positiboa deseskalatze-faseetan, harik eta normaltasunera bueltatu arte.


Azkenik, funtsezkoa izan da hartzailen **familiek eta laguntza-sare naturalek** izandako rola, balio handikoak baitira hartzailleentzat eurentzat eta erakundeentzat.

Bereziki hartzailen kolektibo batzuen kasuan, funtsezko zutoin bilakatu dira, eta berrantolatua egin dira ikusteko zer-nola eman zezaketen babes hobea etxe barruan, bizikidetzara bera ere aldatuz. Hori da konparazio batera, bakarrik bizi ziren eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen kasua; gurasoekin bizi izatera igaro ziren alarma-egoera dekretatu aurretik. Beste horrenbeste desgaitasun intelektualak dituzten pertsonekin ere; haien familiek modu estoikoan gorde dute bizikidetzara, atsedeen-momenturik gabe.

Nabarmenezkoa da, era berean, familiek edo babes-sare naturalek apenas eskatu dietela laguntzarik erakundeek, edo batere ez, eta onartu dute salbuespen-egoera dela; horrenbestez, erakundeak ari dira saiatzen egoerari aurrea hartzen eta oso presente egoten familia-nukleo horietan.

Bereziki garrantzitsuak dira familiek emandako zainketa horiek mendekotasun oso handiak dituzten pertsonen kasuan. Familia horiek bizi duten higadurak gogoeta eginarazten du, noiz arte izango ote diren gauza zainketa-maila horri eusteko edo zer ondorio izango ote dituen bizi duten higadura fisiko eta emozionalak.

Oro har, haurrak dituzten familiek ere funtsezko egitekoa hartu dute beren gain, seme-alabei hezkuntzan babesa eskainiz. Baina baita eremu emozionalean ere, konfinamendu-garaitan. Alde horretatik, erakundeek adierazten dute kezkatuak daudela zer gertatu ote den lan-jarduna normalizatzen denean baina eskolarik ez denean –eta, ondorioz, familiek beren gain hartu behar dutenean familia-kontziliazioa–.



Zerbitzuak eta jarduerak

Oro har, hiru elementu ikusten dira garrantzitsutzat, COVID-19aren krisiaren inpaktua zehazten ari diren aldetik erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzu eta jardueretan: ziurgabetasuna, erakundeek egokitzeko edo berrantolatzeko daukaten gaitasuna, eta zerbitzuotan pertsonak eta harremanek duten garrantzia.

Erakundeek **ziurgabetasun** kezkarria ageri dute, batez ere erakundeen finantzaketarekin loturik: kezka handia ageri da jardueren eta zerbitzuen bideragarritasuna dela eta. Kezkarria da zer gertatuko ote den diru-laguntza eta laguntzekin, bai aktibo daudenean, bai urtean zehar aktibatu beharrekoekin. Horretaz gainera, egungo testuinguruak bitarteko ekonomiko propioekin beren gain hartzen ari diren zama ekonomikoa sortzen du (ahal den neurriak eta halakorik egiteko modua dutenek, behinik behin), eta egoera hori ez da denboran irauteko modukoa. Ordainpeko pertsonen etorkizunak ez ezik, hartzailenak ere kezka sortzen du.

Ordainpeko pertsonen kasuan, dagoeneko gertatu dira kaleratzeak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, lan-ordutegia murriztea eta abar. Eta epe laburrean zerbitzu eta jarduera jakinak aktibatzeke zailtasunak hondamena ekarriko du ildo horretan bertan, eta litekeena da lan-baldintzek okerrera egitea ere.

Hartzaileei dagokienez, orainak kezka sortzen du, baina baita epe laburreko egoerak ere. Erakunde askok ez dakite jarduerari eutsi ahal izango ote dioten edo erabat birplanteatu beharko ote duten, osasun-arriskuak direla eta. Hori gertatzen da, konparazio batera, eguneko arreta-zerbitzuekin, baita haurrei zein desgaitasuna duten pertsoneri zuzenduriko aisialdi-zerbitzuekin ere. Erakundeek ez dakite zer eratako zerbitzuak eta jarduerak eskaini ahal izango ote dituzten aurtengo udan; hori dela eta, ezinezkoa iruditzen zaie identifikatzea horrek zer inpaktu izango ote duen hartzaileetan, erakundeetan eta haien iraunkortasunean.

Ziurgabetasunaren eta presaren ginetik, erakundeek erakutsi dute gaitasun handia dutela testuingurura **egokitzeko** eta beren zerbitzuak **berriro asmatzeko**, eta, halaber, bistan geratu da gauza direla hartzaileei erantzunak ematen jarraitzeko. Baina ez da zerbitzuak eta jarduerak eskaintzeko modua aldatzea bakarrik. Erakunde batzuek berriro asmatzeaz hitz egiten dute, estrategia berriak bilatzeaz erantzun horiek emateko.

Babes-zerbitzuetan telelanera egokitzea, esaterako, beharturiko berrikuntza izan da. Litekeena da kasu batzuetan mantentzea, konfinamendua amaitu ondoren, emaitza onak izan baititu. Alde horretatik, bestelako moduak ari dira aurkitzen zerbitzuak eta jarduerak eskaintzeko, testuinguruak hala beharturik.


Krisia hasi zenetik denbora asko igaro dela iruditzen zaigu –intentsitateagatik eta ekarritako aldaketagatik–. Sentsazio horri gaineratu behar zaio beharrezkoa dela pentsatzea nola asmatu ote daitezkeen berriro erakundeak, egoerak luze jotzen badu. Ez dirudi hartzaileen egoera epe laburrean aldatuko denik.

Esaterako, nahiz eta ez dagoen aurreikusita eguneko arreta-zerbitzuak datozen asteetan aktibatzea, erakundeak dagoeneko ari dira saiatzen neurriak prestatzen, unea iristen denean, martxan ipini ahal izateko. Aisialdiko erakundeak ere ahaleginak egiten ari dira koordinatu eta nolabaiteko soluzio bat bilatzeko, uda-garaiari begira.

Horrek guztiaren ondorioz, erakundeek azaleratu dute COVID-19aren krisiak sektorearen muina berriro aurkitzea ekarri duela: pertsonalizazioaren garrantzia eta **pertsonak erakundeen erdigunean ipintzeko beharra**.

Nabarmentzekoa da, era berean, erakundeetatik eskaintzen diren zerbitzu eta jardueren **erlazio-izaeraren** balioak bereziki jasan duela Covid-19aren eragina. Laguntzarako aurrez aurreko zerbitzuetan bereziki garrantzitsua da profesionalen, boluntarioen eta hartzaileen arteko harremana, haien guztien artean sortzen den loturagatik; zerbitzu horiek itxi izanaren ondorioz, erakundeek berregokitu egin behar izan dute lotura hori, ahal izan denetan. Hori horrela, aurrez aurreko lotura hori **lotura telematiko** bilakatu dute, hartzaileengatik gertu egoten jarraitu ahal izateko.

Alde horretatik, erakundeek adierazten dute egoera hau aukera bilakatu daitekeela laguntzari balioa emateko, baita elkarri laguntzeko espazioei, babes informalei edo aisialdi eta denbora libreko jarduerari ere, eta epe laburrean nabaritutako dira alarma egoeran zehar halakorik ez izatearen ondorioak.




Boluntarioak eta ordainpeko pertsonak

Modu transbertsalean, bi elementu nabarmendu behar dira COVID-19aren krisiak erakundeetan izandako inpaktuari buruz: ordainpeko pertsonen prestutasuna eta profesionaltasuna eta boluntarioen garrantzia.

Erakundeetako profesional gehienek ikusi dute ohiko lan-jarduera aldatu zaiela, eta **profesionaltasunez eta prestutasunez** egin diote aurre aldaketari. Zuzeneko arreta-zerbitzuetan ahalegin bereziak egin dituztenek konpromiso handia erakutsi dute hartzailleekin, eta are zentzu handiagoa eman diote pertsonarik hauskorrenak zaintzeak duen garrantziari. Jarduera berriro orientatu behar izan dutenei dagokienez, prestutasunez eta konpromisoz jardun dute haiek ere, batzuetan bestelako egitekoak eta bestelako pertsonak aurkituz. Erantzukizun-postuak dituzten pertsonari dagokienez, haiek ere ahalegin bereziak egin dituzte erakundeetako profesionalekin komunikatzeko eta haiek zaintzeko, babesak sortuz, jarduera-ildo berriak bistaratzu eta abar.

Boluntarioei ere aldatu zaie erakundeetako parte-hartzea, COVID-19aren krisialdia hasi zenetik. Eta, hala eta guztiz ere, erakunde askok eta askok nabarmentzen dute ageri duten **konpromisoa**; hori horrela, ahal dutenetan, komunikazio- eta babes-espazioak sortzen dituzte, eta erakunde eta hartzailleengandik gertu egoten dira. Datozen hilabeteek ageri duten ziurgabetasunaren aurrean, erakundeek adierazten dute garrantzitsua dela boluntarioak zaintzea, bizirik eustea haiekin duten konexioari.



Baliabide ekonomikoak

Hainbat eremutako edo hainbat kolektibori erantzuten dioten erakundeen egoera jakinak albo batera utzita, nabarmentzen dira beste elementu zeharkako edo orokor batzuk ere, COVID-19aren krisiaren inpaktua zeharkatzen dutenak bitarteko ekonomikoari dagokienez: beharrezkoa da sektorearen espezifikotasuna aitortzea, eta, kasu batzuetan, baita erakunde batzuen biziraupenaren gaineko ziurgabetasuna ere.

Erakundeek eskatzen dute beharrezkoa dela **erakunde publikoek sektorearen espezifikotasuna aitortzea**. Enpresek eta autonomoek eskuratu ahal izan dituzte SPRIK edo foru-aldundiak emandako laguntzak, baina Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak laguntza horietatik kanpo geratu dira. Laguntza espezifiko horiek bereziki erabilgarriak izango lirateke finantzaketa propioa lortu ahal izan ez den agertokietan, baina, aldi berean, ezin izan dira albo batera utzi eskainitako zerbitzuak.

Alde horretatik, erakundeek eskatzen dute laguntza ekonomikoaren ildo bereziak gaitu behar direla Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeentzat, eta beharrezkoa dela aitortzea sektoreak egindako ekarpen sozialaren balioa eta kudeatzen duten giza kapitala eta kapital soziala. Ikusezintasunak ez die hartzaillei bakarrik eragiten, baizik eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundearen egiturei berei ere bai, eta haien espezifikotasuna ez dute kontuan hartzen testuinguru eta egoera askotan.

Finantzioari eta bitarteko ekonomikoei buruzko **ziurgabetasuna** bereziki loturik dago finantzaketa publikoarekin zer gertatuko ote den jakitearekin. Oro har, erakundeak beldur dira osasunaren alorrak alor soziala irentsiko ote duen.

Larrialdiak osasun-arretari eman dio lehentasuna, eta alderdi soziala bigarren plano batean geratu da. Kezka sortzen du datozen hilabeteetan horrek berdin jarraituko ote duen, eta erakundeak oro har beldur dira partida ekonomikorik handienak osasunaren alorrera bideratuko ote dituzten eta ez ote den egongo apustu espezifikorik alderdi sozialen inguruan.

Era berean, lankidetzaren eremuan, kezka handiz ikusten da COVID-19a zabaldu izanak sorturiko krisia eta krisi horrek munduko toki gehienetan izango dituen oihartzun sozial eta ekonomikoak, ez Euskadin bakarrik. Alde horretatik, ez dakigu zer-nola eragingo dien egoera horrek nazioarteko lankidetzaren politikei, eta litekeena da bereziki apalduta geratzea.

Ziurgabetasun horren aurrean, erakunde batzuk beldur dira ez ote duten iraungo, bereziki txiki eta ertainak, lantaldeak gehienbat boluntarioz osatuta dauzkatenak; haien finantzaketa diru-laguntza publikoen mende baitago ia oso-osorik.